

Kultura

Durangoko Baleuko ekoiztetxeak sortuta 'Amaren eskuak' filma, Zugaza zineman, asteburuan > 9



Joan zen zapatuko sexu erasoa salatzeke kalera irten dira durangarrak

Durangoko Udalak akusazio partikularra izatea erabaki du indarkeria kasu honetan PSE-EEK eskatuta

Durangoko herritarrak kalera irten dira joan zen zapatuan Komentukalen 28 urteko emakume batek jasandako sexu erasoa salatzeke. Sare sozialen bidez Bilgune Feminista eta Txoko Feministako kideek domekarako mobilizazioa antolatu zuten. Za-

patu eguerdian, Durangoko Udaleko bozeramaile batzordea batzarrean bildu zen. Erasoa gaitzesteagaz batera, udala akusazio partikularra izatea adostu zuten. Astelehenerako udalak deituko elkarretaratzeak ehunka lagun bildu zituen. > 2

'Jaietan ere, euskaraz hobe'

Guka gunea lema berriagaz eta nobedadez beteta dator > Gehigarria



Kepa Aginako



BOART

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eitua Ind., 9 - 6. behe - BERRIZ - Tel. / Faxa: 946 826 879

Durango > 4

Herriraren kontrako operazioa salatzeke mobilizazioak

Zaldibar > 4

Istripuan hildako langilearen familiari laguntza eskainiko diote

Durangaldea > 2

'Euskaraz bizi nahi dut' lemapean, herri lasterketak

Elorrio > 5

Errebonbilo Eguna ospatuko dute domekan elorriarrek

Herririk herri

> DURANGALDEA



Zapatuan sare sozialen bidez deituta kazerolada, Ezkurdin.



Astelehenean, udaletxe aurreko plaza jendez beteta erasoa gaitzesteko.

Durangarrak kalera irten dira sexu erasoa salatzeko

Udaletxe aurreko plaza jendez bete zen, joan zen zapatuan 28 urteko emakume batek jasandako sexu erasoa gaitzesteko; 27 urteko erasotzailea atxilotu zuten

> JONE GUENETXEA

Durangoko herritarrek kalera irten dira, joan zen zapatuan, Komentukalen, 28 urteko emakume batek jasandako sexu erasoa gaitzesteko. Goizeko 07:30 inguruan gertatu zen erasoa, liburutegiaren ondoko plazan. Udaltzainak ingurutik pasatu zirenean, zerbait susmagarria ikusi, eta liburutegiko kamerak piztu zituzten. Pantailetan sexu

erasoa gertatzen ari zela ikusi zuten. Udaltzainak berehala gerturatu ziren bertara. Ertzaintzak 27 urteko gizonezkoa atxilotuta eraman zuen.

Gertatutakoaren aurrean Durangoko herritarrek berehala erantzun zuten kalean. Sare sozialen bidez, Bilgune Feministak eta Txoko Feministak kazerolada eta manifestazioa deitu zuten domeka eguerdira-

ko, Ezkurdin, eta Alde Zaharra zeharkatu zuten. Durangoko Udaleko bozeramaile batzordea, berriz, batzarrean batu zen zapatu eguerdian. Erasoa gaitzesteagaz batera, erasotutako emakumeari, bikotekideari eta familiari elkartasuna adierazi zioten. Sexu erasoaren kasuan, udala akusazio partikularra izatea ere erabaki zuten. Udalak astelehen iluntzerako deitutako

elkarretaratzeak jendez bete zuen udaletxe aurreko plaza. Alderdi guztietako udal ordezkariak, Bilgune Feminista eta Txoko Feministako kideak eta ehunka herritarrek parte hartu zuten elkarretaratzean. Bi talde feministek ohar batean adierazi dutenez, “ez dezagun ahaztu kasu hau ez dela bakarra. Zoritxarrez bortxatzaile eta erasotzaile gehiago ditugu Du-

rangon, kaletik bizitza arrunta egiten dute gainera”. Bi taldeen arabera, arazoa “estrukturala” da. Posizionatzea ezinbestekoa dela diote: “Erasotzaileak babes-ten dituzu ala emakumeon eskubideak defendatzen dituzu”. Gaineratu dutenez, “Durangoko jaiak ate joka ditugu, eta badakigu zenbaitetan jai giroa aitzakia perfektua izaten dela erasoak ez-kutatzeke. Ez dugu onartuko!”.

Sexu erasoaren aurrean, udala akusazio partikularra izatea erabaki dute

Iurretako kasua

Iurretako jaietan zeuden neska bik salatu dutenez, kotxe biren artean txiza egiten zebiltzala gizonezko bat “lizunkeriak egiten” hurreratu zitzairen. Neskak zarataka hasi, eta gizonak alde egin zuela azaldu dute.

Euskaraz bizitzeko gogoia aldarrikatuko dute lasterketetan

‘Euskaraz bizi nahi dut’ leloagaz arineketan egingo dute Berrizen eta Zornotzan



Berrizen iazko irailean egin zuten lasterketako irudi bat.

> AMAIA UGALDE

Iazko antzera, urri honetan herri lasterketak antolatuko dira Euskal Herriko hainbat herritan, *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean. Kontseiluak bultzatutako ekimenera hainbat herri batu dira, eta Durangaldean asteburu honetan izango dira lasterketa

horietako bi; Zornotzan zapatuan, eta Berrizen domekan.

Zornotzan, EHE, Esait eta Nañon Zorrontzan Euskeraz taldeek antolatu dute zapatuko lasterketa. Zubiondo parkean hasiko dute 12:00etan, eta ordubete arinago hasiko da izen-ematea. Lasterketa hiru taldetan bana-

tuko da. 6 urte arteko umeei 200 metroko ibilbidea egingo dute, 7 eta 17 urte bitartekoek kilometro batekoa, eta 18 urtetik gorakoek bost kilometrokoa.

Berrizen zapatu eguerdian egingo dute lasterketa, eta jaialdia. Futbol zelaitik irtengo dute arineketan, eta herriko kaleak zeharkatuta, Olakueta plazan amaituko dute lasterketa. Goizeko 10:45ean ipini dute ordua Olakueta izena emateko, eta 11:15 aldera Berrizburura joango dira trikitilariak lagunduta. 11:30 inguruan hasiko dira korrika, eta ondoren, tailerrak eta luntxa edukiko dituzte Olakueta plazan. Euskararen Aholku Batzordea eta udala ibili dira zapatuko jaia prestatzen.

Abadiñon ere badabiltza antolaketaarako batzarrak egiten, eta laster definituko dute lasterketaren eguna.

> ATXONDO

Garapen pertsonalari buruzko ikastaroa

Atxondoko Lamiak elkarteak memoria garatzeko teknikak eta garapen pertsonala landuko ditu

> J.D.

Atxondoko Lamiak elkarteak garapen pertsonalaren, eta memoriaren inguruko ikastaroa abiatuko du astelehenean. Urriaren 7an hasi, eta martxoaren 31ra arte astelehenero batuko dira Apatako udalbatzar aretoan, 16:00etatik 18:00etara.

Garapen pertsonalaren inguruan honako arlo hauek landuko dituzte: adimen emozionala, norbere buruaren ezagutza sakontzeko gakoak, autoestimua eta distortsio kognitiboa... Memoria garatzeko teknikak lantzeko ere erabiliko dituzte astelehenetako klase orduak: zer memoria mota dauden, zelan funtzionatzen duten, epe ertainera zein luzera begirako memoria zelan garatu, memoria onari eusteko trukuak...

Zabu Zibu ekimena

Amankomunazgoaren eta Ur-txintxa Eskolaren bidez, Zabu Zibu ekimena garatzen dabil-tza hainbat herritan, tartean, Atxondon. Jolasen bidez, 3-5 urte arteko haurren, eta gurasoen arteko euskarazko harremana sendotu nahi dute. Oporretatik bueltan saio bi egin dituzte, eta beste bi geratzen dira: gaur eta urriaren 11n, 17:00etatik 18:00etara, udaletxeko plazan.

Zabu Zibu ekimenean hitzordu bi geratzen dira: gaur eta urriaren 11n, udaletxeko plazan

> DURANGO

Pertsona nagusien beharrian eta arazoak, lehen ikuspuntutik

Adinekoen egunaren harira, bizi duten egoeraz eta erreformaz hausnartzen

> MARKEL ONAINDIA

Martitzenean Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Amankomunazgoak eta udalek hainbat ekintza antolatu zituzten nagusien elkarteekin batera, eta bihar izango da azkena Zaldibarren, Belaunaldi arteko Martxagaz. Zahartze aktiboa sustatzea, eta nagusien integrazioa indartzea dira helburuak. Durangoko ekintzak antolatzen ibili direnetako bi dira Pablo Romero (71 urte) eta Jose Mari Zamakona (66 urte). APEDUR pentsiodunen elkarteak dira. Horregatik, euren beharrez gainera, pentsioen erreforma ere izan dute berbagai solasaldian.

Azken hogeitaz urteetan nagusien bizimodua asko aldatu dela uste dute Romerok eta Zamakonak. Lehen, jubilatuen etxera

joan, eta kartetan jokatzeko zuten; orain aktiboago bizi ei dira, tailer eta ikastaroak garatzeko ohitura dago. Eurak antzerki talde batean dabilta. Edozelan ere, kolektibo lez batasun handiagoa behar dela uste du Romerok: "Lehen baino arazo gehiago badaukagu, zergatik ez gara afiliatzen edo elkartean sartzen?".

Herria, nagusien begietatik Beharrianak dauzkate, eta euren bizimoduan eragina dauka herria urbanizatzeko moduak.

Romero: "Lehen baino arazo gehiago badaukagu, zergatik ez gara afiliatzen?"

Horretaz jabe, herria pertsona nagusien ikuspuntutik moldatzeko batzorde bat sortu dute Durangon. Izan ere, Adinekoekin Hiri Adeitsuak izeneko sarean sartu da udala. Batzorde horretan dago Zamakona. Oztoko arkitektonikoak topatzen dituztela dio, eta kaleko zerbitzuak ere falta direla: "Durangon hiru komun publiko bakarrik daukagu, eta lehenago hainbat lekutan zeuden". Udaltzaingoen oinezko zerbitzua ere faltan bota du, informazioa emateko beharrezkoa dela iritzita.

Pentsioen erreformaz

Espainiako Gobernuaren pentsioen erreformagaz, dirua kenduko dietela uste dute. Kritiko dago Romerok alderdiekin: "Gurabiltzen gaituzte, botoak jaso,



Romero eta Zamakona, solasaldiaren osteko une batean.

eta eurak eroso egoteko. Elkartebaten denok batuta egongo bagina, gobernuaz ziztatu eta egoera bestelakoa litzateke". Zamakonak gaineratu du, PP eta PSOEz: "Lehen Espainian baten diktadura geneukan, orain biko".

Espainiako sindikatuetan ere ez dute konfiantzarik, Romeroren ustez ez dutelako gober-

nuaren kontra egiten. APEDUR elkarteak eskubideen gutun soziala landuko du sindikatu aberzaleekin batera. "Ez abertzaleak direlako, gobernuari hau aldatzea exijitzeko zerbait atera ahal delako baizik", azaldu du Romerok. "Zerbait sortu behar da euren hierarkia hausteko. Zelan? Hori da topatu behar dena".

Frackingaren inguruan sentsibilizatu guran

Enpresek zundaketa baimenak eskatu dituzte

> M.O.

Frackingaren kontrako taldea sortu da Durangon. Lur azpitik, konbentzionala ez den gasa ateratzeko teknika da frackinga, haustura hidraulikoz egiten dena. Eusko Jaurlaritzak metodo hori erabiltzea baimendu du, eta Durangaldean ere enpresek zundaketak egiteko baimenak eskatu dituzte. Teknika berri horrek

sortu ahal dituen ingurumen arazoei bultzatuta, hogeitaz bat lagun batzen hasi dira. Joan zen astean egin zuten lehenengo ekimena, informazioa banatuta, herriarrak sentsibilizatu guran.

Gasa ateratzeko, beherantz 5.000 metroko zuloa egiten da lurrean, eta ura eta gai kimikoak presio handiz botata, eztandak sortzen dituzte.



Joan zen astean Andra Marin egindako informazio banaketa.

Langabetuentzako lana igerilekuetako tabernetan

Udalak hitzarmena sinatu du Dendak Bai elkarteagaz, eta horrek gestionatuko ditu tabernak

> M.O.

Landako eta Tabirako igerilekuetako tabernetan langabetuek egingo dute lan. Udalak Dendak Bai elkarteagaz hitzarmena sinatu du, eta ondorioz, elkartearen esku egongo da kudeaketa. Durango Kirolak, udalaren menpe dagoen erakunde autonomoa, doan utzi dio Dendak Bai elkarteari tabernen gestioa. Trukean, merkatarien elkarteak Lanbiden izena emanda dauden herriarrak kontratatzeke konpromisoa hartu du. Udalak eman du ekimenaren

Dendak Bai-k, Lanbiden izena emanda dauden herriarrak kontratatzeke konpromisoa hartu du

berri prentsa ohar bidez, eta azaldu dute, lan mundura sartzeko arazoak dauzkatenek lagun-tzea dela euren helburua. Egutxiren bueltan zabalduko dute Landakoko kafetegia, adierazi dutenez.

PSE-EEren lana

Bestalde, PSE-EEk ere prentsa oharra bidali du hitzarmenaren sustapenean eurek ere ekarpena egin dutela azaltzeko. "Durangoko sozialistok lana sortzeko beharrea jarraitzen dugu", esan dute. Euren ustez, langabetuen kontra egiteko bidea merkatari, enpresa eta administrazioekin hitzarmenak lortzea da.

PSE-EEren arabera, Behar-gintzak formazioa eskainiko die igerilekuetako tabernari berriei, horren beharrea baldin badaude.

Aukera azoka egingo dute bihar, bost saltokigaz

> M.O.

Dendak Bai elkarteak sustatuta, Aukera azoka egingo dute bihar, Andra Mariko elizpean. Bost saltokik parte hartuko dute: Chiloé, Etxedreams, Garoa, Sylke eta El Oso Mimoso. Beraz, ume zein nagusientzako arropak eta atsedenerako sistemak eskainiko dituzte. Goizeko 10:00etan hasiko da azoka, eta 20:00ak arte etenik barik egongo da zabaldua. Beherapenekin salduko dituzte gaiak, eta horregatik asko saltzea espero dute.

Gainera, umeen parkea ipiniko dute inguruan, azokako giroa animatzeko helburuz. Parkean sartzeko, Dendak Bai elkarteak saltoki bateko erosketa tiketa eta Durango Txartela erakutsi beharko dira. Dendak Bai elkarteak azaldu du, erosleen artean zozketak egingo dituztela, opari-txartelak banatuta.

MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua Industriagunea, 66
Tel./Faxa: 946 827 890
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak - isolamenduak
- pladurra... • Eskaintzak lehen mailako zeramiketara •
2. mailako baldosak trastelekuetarako.

Den-dena MACOBERren, Berrizen!

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behe - 946 816 673 - lurreta
www.zarateyelexpe.com

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Herrira mugimenduaren kontrako operazioa salatu dute

Gaurko ere, operazioa kritikatzeko mobilizazioak deitu dituzte herririk herri

> MARKEL ONAINDIA

Guardia Zibilak astelehenean Herrira mugimenduaren aurka egindako operazioa txarretsi dute hainbat herritarrek kaleetan. Durangon martitzenean egindako mobilizazioan 390 lagun batu ziren. Protestaren amaieran, bultzatzaileek esan zuten Herrirak atxikimendu ugari jaso duela 2012an sortu zenetik: “Espainiako Estatuak bultzatutako polizia operazioak herritarren atxikimendua etetea du helburu, eta horrekin batera konponbide prozesua tratatzea”.

Euren ustez, demokraziaren eta Euskal Herriaren kontrako “erasoa” ere izan da: “Herri bezala erantzun behar dugu.

Biharko, manifestazio nazionala deitu dute 34 sindikatu, alderdi eta gizarte eragilek

Inoiz baino gehiago, kalean egon behar da Herrira”. Aurrera begira, lana ere herri izaeraz

egitea eskatu zuten: “Herri bezala landu behar dugu preso eta iheslarien giza eskubideak betetzea ekarriko dituen ibilbidea, etxera ekartzeko bidea”. Herritar guztiak ezinbesteko ei dira, “tantaz tanta osatuko dugulako ukazioaren barroteak irauliko dituen itsasoa”.

Eskualdean ere egon dira protestak. Elorrión, adibidez, 200 lagunek asanblada egin, eta gaurko ekimenak eratu zituzten. Izan ere, gaurko ekimenak daude deituta herriz herri. Elorrión 19:30ean batuko dira pla-



zan, giza katerako. Durangon, 19:00etan kontzentrazioak egingo dituzte hainbat lekutan, eta 20:00etan manifestazioa Andra Maritiki. Abadiñon kalejira deitu dute 19:30erako, Traña-Matienan. Berrizen 19:00etan batuko dira, Olakuetan.

Biharko, manifestazio nazionala deitu dute 34 sindikatu, alderdi eta gizarte eragilek. Bilbon izango da, 17:30ean. Adierazi dute “bidegabekeria” izan dela operazioa, eta preso eta iheslarien eskubideen defentsa kriminalizatu gura izan dela.

Larrialdietan ikerketa egin behar dela dio ikuskaritzak

Lan ikuskatzaileak Osakidetzari agindu dio sei hilabeteko epean arrisku psikosozialak ebaluatzea

> MARKEL ONAINDIA

Landakoko larrialdietako behar-ginek hilabeteak daramatzate euren lan baldintzak onak ez direla aldarrikatzen. Azken urteetan lan karga asko handitu dela diote, baina behargin taldeagaz ez dela gauza bera gertatu. Oso egoera estresagarriak sortzen direla ohartarazi dute, eta eurek pertsonen osasunagaz lan egiten dutela kontuan hartu behar dela uste dute. Horregatik, Lan Ikuskaritzan arriskuen inguruko azterketa bat egitea eskatu zu-

ten, eta onartu egin berri diete. Azterketa egingo dute.

Ikuskatzaileak Osakidetzari agindu dio sei hilabeteko epean arrisku psikosozialak ebaluatu beharko dituela. Izan ere, Europako Laneko Segurtasun Agentziak dio lanaren antolaketak kalte psikiko edo sozialak eragin ahal dituela beharginarengan. Estresa edota nekea dira ondorioetako batzuk. Landakoko zentroaren kasuan, bereziki bertako estresa eta gaixoen pilaketa ebaluatzea eskatu du ikuskaritzak. Arriskuak ebaluatu eta gero, horien prebentziorako neurriak zehaztea izango ei da hurrengo pausoa.

Gerentea ere, salaketan

Azterketa ez dute beharginek bakarrik eskatu. Durangaldea eta Busturialdea batzen dituen barrutiko gerenteak, Enrique Maizek, ere eskatu du. Gainera, ELA, LAB, UGT, CCOO, ESK, SATSE eta SM sindikatuetaordezkariak ere parte hartu dute salaketan. Durangoko eta Bazarriko zentroetan egingo dute azterketa, salaketa bi zentroei begira egindakoa izan da-eta.

Lan Ikuskaritzan arriskuen inguruko azterketa bat egitea eskatu zuten, eta onartu egin diete

Bertako estresa eta gaixoen pilaketa ebaluatzea eskatu du ikuskaritzak

ZALDIBAR

Udaletxean eta kalean salatu dute lan istripua

Joan zen eguazteneko lan istripuari erantzuteko premiazko mozioa aurkeztu zuen udal gobernuak



Lan prekarizazioaren kontrako kontzentrazioa egin zuten barikuan.

I.E.

Joan zen astean herriko baso bide batean jazotako lan istripuaren inguruan jardun, eta 53 urteko langilearen heriotza salatzeke urgentziazko mozioa aurkeztu zuen Bilduko gobernu taldeak, egueneko udalbatzarrean.

Udal gobernuaren eta PSEko zinegotzi baten aldeko botoekin onartu zuten lan istripuari buruzko mozioa. Zaldibarko Udalak bost konpromiso hartu

ditu, mozio hori onartuta. Besteak beste, “hildako langilearen familiari eta lagunei elkartasuna adierazi eta laguntza ematea (ekonomikoa barne)”, “gertarikoa argitzeko beharrezko birtartekoak jartzea”, eta “istripua salatzeke antolatutako diren mobilizazioekin bat egitea”. Barikuan egin zuten, hain zuzen, ELA, LAB, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuek lan istripua salatzeke elkarretaratzea.

> GARAI

Momoitioko nekropoliaren berri, urriaren 19an

Nekropolian ikerketa zuzendu zuen Iñaki Garcia Caminok emango ditu azalpenak bisitan

> M.O.

Momoitioko San Juan baseliazaren ondoan dago Erdi Aroko nekropolia. ‘Aostarri proiektua’-ren bidez lehengoratu zuten, 2009an. Azterketa horiei esker, Euskal Herriko historiari

buruzko datuak ondorioztatu zituzten ikerketaileek; Durangaldeko bizimoduari buruzkoak ere bai. Europako Ondarearen Jardunaldien baitan, bertara bisita gidatua egingo dute urriaren 19an. Berez domeka honetan

Marihuana plantazio bat atzeman du Ertzaintzak

> J.G.

Olarreaga auzoko industriagune batean 598 marihuana landare aurkitu zituen Ertzaintzak, joan zen egunean. Industriadun izandako lapurreta bat zela-eta bertara joan zirenean topatu zuten agenteek landaketa.

Plantazioaren ustezko arduraduna atxilotu egin zuen Ertzaintzak, droga-trafikoa egotzita

Pabiloira sartzerakoan atea apurtuta zegoela konturatu zirela azaldu du Ertzaintzak. Barrualdea aztertu ostean, pabiloia zenbait gelatan banatuta zegoela ikusi zuten. Gaineratu dutenez, instalazioak landareak landatu eta hazteko tantakako sistema zuten, baita hozteko eta argiztatzeko sistema ere. Ertzaintzaren arabera, plantazioaren ustezko arduraduna atxilotu egin zuten, droga-trafikoa egotzita.

egin behar zuten, baina atzeratu egin dute. Ikerketa zuzendu zuen Iñaki Garcia Caminok emango ditu azalpenak, gaztelaniaz.

Garcia Caminok 80ko hamarkadan ekin zion ikerketari. Aurkitutako lehenengo aztarnak IX. mendeko komunitatearenak dira. Etxola zirkularrak eraiki zituzten, eta ganadua zaintzen zuten. Inguruko lurrak ere lantzen zituzten.

Udalak, Gerediaga Elkartek eta Urkiola Landa Garapena elkarteak sustatu dute urriaren 19ko bisita.



Landakoko Atentzio Iraunkorreko Gunean azterketa egingo dute.

> ELORRIO

Euskara ikasteagatik diru-laguntzak eskatu ahal dira

> M.O.

Udalak euskara ikasteagatik diru-laguntzak emango dizkie herritarrei. 13.000 euroko partida onartu du laguntzak bideratzeko, azaldu dutenez. Urriaren 18ra arte eskatu ahalgo dira laguntza horiek, udaletxean.

Eskatzaileek baldintza batzuk bete beharko dituzte: ikastaroa euskaltegi homologatueta egitea, %80ko asistentzia betetzea, Elorrion errolatuta egotea eta udalagaz zorrik ez edukitzea. Horrez gainera, eskaera egitean matrikularen kopia aurkeztu beharko da, baita euskaltegiaren ziurtagiria ere.

Diru-laguntza ez da berdina izango eskatzaile guztientzat. Ikastaro motaren eta bakoitzaren asistentziaren arabera neurtuko dute eman beharreko kopurua.

Errebonbilo Eguna ospatuko dute domekan

Goizeko 05:00etan iragarriko dute egunaren hasiera lehenengo eskopeta tiroekin

> MARKEL ONAINDIA

Elorriko jai nagusienetako bat ospatuko da domeka honetan: Errebonbilo Eguna. Tradizioari jarraituta, sasoi batean hainbat herritan zeuden defentsa-talde antolatuen antzezpena da urriko lehenengo domekan Elorrion ospatu ohi dena. Antzezpena, gainera, jai giroarako aitzakia bihurtzen da. Errebonbiloen tiroak, kalejirak eta dantzak izango dira protagonista aurtengo jaialdian ere.

Goizeko 05:00etan iragarriko dute egunaren hasiera lehenengo eskopeta tiroekin. Ohituraren arabera, Sortzez Garbiaren basilikara eta udaletxera begira jaurtitzen dituzte lehenengo tiroak. Gero, kalejira hasiko dute txistulari eta danbolin-joleen laguntzagaz.

Goizeko kalejiraren ostean, eguerdian txistu kontzertua eskainiko du Jaizale Durangaldeko txistularien elkarteak. Txistulariekin batera Durangoko Metalen Taldea eta Berrio-Otxoa orfeoia ere egongo dira.

Alardea, 17:00etan

Arratsaldean, Errebonbiloen alardea ospatuko da plazan, 17:00etatik aurrera. Dantzak ere ikusi ahal izango dituzte bertaraten direnek.

Sasoi batean hainbat herritan zeuden defentsa-talde antolatuen antzezpena da



Arratsaldeko 17:00etan izango da Errebonbiloen alardea.

> BERRIZ

Euskararen transmisioa berbagai Guraso Eskolan

Eskolako errendimenduan seme-alabei laguntzeko tailerra ere antolatu dute udazkenerako

> AMAIA UGALDE

Berrizko gurasoen eskolara-ko tailer bi antolatu dituzte: etxean ematen diren hizkuntza ereduen gaineko tailerra, eta eskola errendimenduan umeei laguntzekoa. Urriaren 15era arte eman daiteke izena tailerrotan.

Berrizko Udaleko Euskara Sailak antolatu ditu tailerrak. 'Zer ikusi, hura ikasi' tailerrean familia barruan euskarak daukan lekua eta hizkuntza jarre-

'Zer ikusi, hura ikasi' tailerrean etxean euskara arloan ematen diren ereduak aztertuko dituzte

rak landuko dituzte. AEK-ko AHIZE hizkuntza aholkularitzak emango du tailer hori hiru saiotan, urriaren 29an hasita. Tailerraren helburua gurasoek euskara arloan umeei emandako ereduaz aztertu eta hobetzea izango da.

Bestalde, eskolako egunero-ko martxari etxean laguntzeko egun bateko tailerra ere antolatu dute. Urriaren 30ean izango da tailerra, 18:00etan, eskolako liburutegian.

Izena emateko azken eguna urriaren 15a izango da. Izena emateko orriak banatu dituzte, eta eskolan edo udaletxean utzi daitezke. Informazioa eskatzeko udaletxera deitu edo euskara@berriz.org-ra idatzi daiteke.

Ikasturtea hasteko, ludotekako jaia egingo dute

> A.U.

Zapatu honetarako Kalabazan ludotekan jaia antolatu dute Berrizko ludotekako begiraleek. Aurten ere bi zaturik behin zabalduko dute Kalabazan Pagotxa aisialdi elkartekoek, eta ikasturteari hasiera emateko, zapatuan, 17:30etik aurrera, Olakueta plazan elkartuko dira. Jolasak, musika, aurpegiak margotzeko txokoa, marrazkiak... egongo dira.

Aurreko ikasturtean 85 ume egon ziren izena emanda ludotekan. Aurten ere kultur etxeko hirugarren pisuan elkartuko dira, bi zaturik behin. Iazko txandak edukiko dituzte: 3 eta 5 urte arteko umeak 17:00etatik 18:30era, eta 6 eta 11 urte artekoak 18:30etik 20:00etara.

> MALLABIA

Galarra eta Salamatu arteko ur-hoditeria konpontzen

Bizkaiko Foru Aldundiaren errepideko obrak aprobetxatu ditu udalak zati horri ekiteko

> J.G.

Galarratik Salamatura bitarteko ur-hoditeria konpontzen dihardu Mallabiko Udalak. Bizkaiko Foru Aldundia errepidea konpondu eta zabaltzeko lurra zulatzen dabilela aprobetxatu gura izan dute zati horretan

Obrak duela aste bi jarri zituzten martxan, eta egin beharreko lanaren erdia inguru eginga dago

ur-hoditeria berrizteko. Obrak duela aste bi jarri zituzten martxan, eta egin beharreko lanaren erdia inguru eginga dutela ja-

kitera eman du Koldo Pradera zinegotziak.

Gainera, euriteek eragindako lur-jausien ondorioz Salamatu-Gomeziagako auzo-bidea konpontzen jardun zutenean hoditeriak konponketa behar zuela konturatu zen udala. Urtarri-leko luiziak lur kopuru handia mugiarazi zuen, eta kalte handiak eragin zituen. Hoditeria lur-raren gainetik gelditu zen, eta udalak ingurua konpondu gura du orain.

Osmatik Galarra baserrira arteko berriztea eginda zegoen, eta orain bigarren faseari ekin diote. Hurrengo pausoa, Salamatutik Gozineko biltegira doan ur-hoditeria zatia konpontzea izango dela azaldu du udalak.

HEKi
HERRI KIROL KLUBA
- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

**Igandean, urriaren 6an,
12:30ean Iurretako plazan**

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara **ZABALIK**

muruetatorre 2C blokea, behea - 48200 Durango - Tel.: 946 819 951

> DURANGALDEA ASTEON**Domekan izango da Ágredoren berbaldia**

Herrira-ren aurkako operazio poliziala salatzeko, Bilbon, bihar deituriko manifestazioarekin bat egiteko domekara atzeratu dute Walter Ágredo errefuxiatu kolonbiarraren berbaldia. Domekan, Durangoko Intxaurre tabernan, 17:00etan eskainiko du Ágredok bere testigantza.

Martitzenean, sutea izan zen Juan Itziarko etxebizitza batean

Martitzen goizean jazo zen ez-beharra Juan Itziarko auzunean. Udal arduradunek azaldu dutenez, eguerdiko 12:30ean etxe bateko sukaldeak sua hartu zuen erauzgailuaren ondorioz. Etxean zegoen emakumea Galdakaoko ospitalera eraman zuten kea arnasteak eragindako kalteak artatzeko.

**Zaldibarko eskolako eraikin berrien inaugurazio instituzionala egin zuten**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko, Zaldibarko Udaleko zein eskualdeko beste herri batzuetako ordezkari politikoak batu ziren, joan zen barikuan, Zaldibarko eskolako eraikin berrien inaugurazio instituzionalean. Arantza Baigorri alkateak, eta Jaurlaritzako ordezkariak hartu zuten ekitaldian berba, lanen emaitza bertatik bertara ikusteko eraikin berriak bisitatu zituzten, eta amaitzeko, luntxa eskaini zieten.

> IURRETA**Eraikinetan hobekuntzak sustatzeko 25.000 euro****> A. B.**

Fatxadak eta estalkiak birgaitzeko, traba arkitektonikoak kentzeko, eta igogailuak jartzeko diru-laguntzak emango ditu udalak. Iazko urriaren 1etik 2013ko irailaren 30era bitartean obra baimena jaso duten lanak lagunduko dituzte, beti ere, udal araudiko baldintzak betez gero; 25.000 euro gorde dira horretarako. Urriaren 25era arte egin daitezke eskariak. 2009tik hona, 16 jabe-kideen erkidegok jaso dute dirua; 117.740 euro banatu dira.

Elikadura eta artisau azoka domekarako

Lau txokotan banatuko dute XV. ekitaldia duen azoka; 35 erakustoki atonduko dituzte Andaparapen

> AITZIBER BASAURI

Sanmigel jaien azken txanpan sartu dira iurretarrak, baina ekitaldiz jositako asteburua dute aurretik. Domingero jantzita irtengo dira bihar iurretarrak kalera, jai batzordearen gonbitari eskua emanez. Bizikleta festa, bertsolariak, umeentzako jolasak... izango dituzte aukerak. Domekan, berriz, XV. Elikadura eta Artisautza Azoka ospatuko dute, besteren artean. Aurten lau txokotan banatuta,

35 erakustoki atonduko dituzte Andaparapen.

Azken txanpan sartuta, ekitaldiz jositako asteburua dute aurretik

Txakolina, gazta, euskal pastela, ezti, ogia, barazkiak... baserriko ekoizpenak batuko dira txoko baten, herritarrei



Askotariko produktu eta artisau lan batuko ditu aurten ere domekako azokak.

kalitatezko produktuak ekoizleentzako erosteko aukera emanez; garagardoa ere egongo da nobedade lez. Artisanak lanak batuko ditu 2. txoko batek (beira,

larrua, landare zuntzak...), eta umeentzako tailerrak 3. batek. Label okelarena izango da azkena: burruntzian txahala erre, eta pintxoak salduko dira.

> MAÑARIA**Gazteen etxebizitza beharra jakin guran**

Herriko Plan Orokorraren baitan, etorkizunean zenbat etxebizitza eraiki aurreikusiko dute

> M.O.

Mañariko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko partaidetza prozesua egiten dabil udala. Batzarrez gainera, gazteei begira inkesta berezi bat prestatu dute. Izan ere, planaren baitan, etorkizunean zenbat etxebizitza egin aurreikusiko dute. Horregatik, gazteei galdetzen dabilta, benetako beharraren berri jakiteko.

Datozen hamar urteetarako aurreikuspena izango da.

18-35 urte artekoek banatu dute inkesta, eta urriaren 24a baino lehen udaletxean entregatzeko eskatu du udalak. Hone-lakoak erantzun behar dituzte, besteak beste: etxerik bilatzen dabilta, herrian zein lekutan bizi gura duten, edota zelako etxea beharko luketen.

> OTXANDIO**Herriko plaza izango du hizpide gaur Iñaki Uriartek**

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, hitzaldi eta bisita gidatu bana daude gaur eta bihar

> J.D.

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, gaur eta bihar hitzaldi eta bisita gidatu bana egongo dira Otxandion. Gaur, 19:00etan, Iñaki Uriarte arkitektoak *Frontoiko plaza, euskal agora* izeneko hitzaldi-diaporama (gaztelaniaz, plazan) saioa eskainiko du. Bihar, aldiz, *Hiribildua berritzen* izeneko bisita gidatua egingo dute 12:30ean, plazan ber-

tan. Beste hitzaldi bat ere badago urriaren 26an, Alberto Santanak giza esparru publikoen gainean eskainiko duena. Jardunaldi horietan jorratzen den gaiak gaurkotatuta du Otxandion, urriaren 18an (19:00etan) udalak Plaza Nagusia birgaitzeko proiektua aurkeztuko duelako plazan bertan. Orduan herri-tarren iritzia jasoko dituzte, behin betiko proiektua osatzeko.

Dokumentala eta musika emanaldiak gaur Gaztetxean

Skasti eta Skontra taldeek ipiniko dute musika

> J.D.

Ohi duten legez, Gaztetxearen opor osteko irekiera ekitaldia prestatu du gaurko Otxandioko Gazte Asanbladak. Gaztetxea irekita, eta denei zabalik dagoela gogoratzeko ekimena da. 18:30ean *Asturias, La última revolución obrera* izeneko bideo proiektzioa eskainiko dute. Asturiasko Iraultza 1934an Asturiarren gertatu zen langileen ma-

txinadari deitzen zaio. Bigarren errepublikaren sasoian gertatu zen, eta aste bi inguru iraun zuen. Lerrouxen gobernuak hartutako erabakien kontra altxatu ziren.

Ondoren, 22:00etan, Skasti eta Skontra taldeen kontzertuak daude. Skasti ska-dance musika lantzen duen talde euskalduna da; Skontra talde asturiarra da, eta punk-folk musika egiten du.

> ABADIÑO**Mikologiagaz loturiko hitzordu bi antolatu ditu Geredixa taldeak****> I.E.**

Geredixa mikologia elkarteak XXII. Perretxiko Erakusketa antolatu du, urriaren 5 eta 6rako. Zapatuan, 16:30ean ipini dute erakusketarako perretxikoak biltzeko hitzordua: Traña-Matienako Errota kultur etxean. IZADI natur zientzia elkarteak kideek aztertu eta sailkatuko dituzte aleak, eta urriaren 6an ere, 11:00etatik aurrera egongo dira erakusketan ikusgai.

Argazki lehiaketa

Geredixa mikologia elkarteak antolaturiko argazki lehiaketaren sari banaketa egingo dute, bestalde, urriaren 6an. Euskal Herriko perretxikoen eta loreen argazkiak bidali dituzte lehiaketaren parte hartzaileek, eta aurkezturiko lanen artean lau sari banatuko ditu epaimahaiak, domekan. 13:30ean egingo dute argazki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.

Astelehenetik, Traña-Matienako Errota kultur etxean daude ikusgai lehiaketara aurkezturiko argazkiak. Urriaren 15era arte izango dira bertan.

> IZURTZA**Eguenetako Klubak ilusioz ekin dio denboraldi berriari**

Lagunartean eskulanak egiten jarraituko dute

> J.D.

Parte hartzaileen artean balorzioa egin, eta denek erakutsi dute Eguenetako Klubagaz aurrera jarraitzeko gogo. Horrela, joan zen eguenetik hasita, eguenero, 17:00etatik 19:00etara jubilatuen etxean batzen jarraituko dute. Gaur egun, 12 bat lagun

dabiltza, eta 20 urte inguruko pare bat izurtzar ere badabiltza. Nork bere eskulanak egiten ditu: (patchwork lanak, poltsak, zapatak...) dakienak ez dakienari erakutsita. Helburua, eskulanen bueltan hartuemanak sendotzeko gune bat eskaintzea ere bada, eta edonor batu daiteke taldera.

Berbaz

Nerea Mendizabal | Psikopedagogo eta gizarte hezitzailea | 37 urte, Zestoa

“Ezetz hutsaren bidez mugak ipintzeko modua inori ez zaigu gustatzen, helduoi ere ez”

Gurasoentzat ere hasi da ikasturtea. ‘Guraso izaten ikasten: Haurrekin batera hazi eta hezitzen’ ikastaroa ematen dabil Nerea Mendizabal Elorrion. Txintxirri ikastolako gurasoekin lehen saioa egin, eta hurrengo egunean erantzun die galderei.



> AMAIA UGALDE

Ikastaroan guraso askok eman du izena. Umeen heziketaren inguruko kezka handia nabari duzu?

Atzo polita izan zen, gurasoetako batek nik askotan esaten dudan gauza bat esan zuelako: Guraso titulua jasotzen dugu umea jaio delako, baina oso gutxi heltzen gara prestatuta guraso izatera. Titulu hori hartzen dugunean seme-alaben heziketan buru-belarri jartzen gara: haurrari zer dagoen ondo eta zer gaizki ikusarazi, arduratsua izateko zer egin behar lukeen azaldu, autonomia izateko... Atzo erronda egin genuen guraso moduan gure seme alabentzat zer nahi dugun aurkezteko. Oso polita da entzutea guraso guztiok konpartitzen ditugunak, bakoitzak bere modura esanda: “Umea zorionsu izatea gura dut”, “bere buruarekin konfiantza izatea”, “aske izatea eta askatasun hori nik errespetatu ahal izatea”... Oso gauza politikak dira guraso garen aldetik gure seme-alabentzako nahi ditugunak. Zer nolako harremana nahi dugun ere galdetu nien. Orokorrean harremana haurrekin maitasunean oinarritua izatea nahi dugu, errespetuan, komunikazioan... Gero konturatzen gara batzuetan helburu horie-

tara bidean ondo goazela, baina beste batzuetan, automatikoki ikasi dugun moduan jokatzeko; haurrak ez badu egiten egin beharko lukeena, sermoia botako diot, errieta egingo diot, mehatxua... Guraso Eskolan uste dut hori dela ardura nagusia; haurren jarrera batzuen aurrean nola lagundu ahal diegun, gatazkak kudeatzerakoan, guk nahi dugun harreman horretara bidean ondo joateko.

Mugei buruz berba egiten da horrelakoetan. Hitz gakoa da hori?

Asko aipatzen dira mugak, baina batzuetan ez dira egoki erabiltzen. Ikastetxean arazoren bat badago ikasleekin, “ikasleek ez daukate mugarik”, haur bat negarrez jartzen bada supermerkatu erdian, eta amak ez badaki zer egin, “ama horrek ez daki muga jartzen”... Edozer gauza lotzen dugu mugak jartzearen zailtasunarekin, eta zentzu horretan, mugak ulertzeko modua oso azalekoa izaten da. Pentsatu dezakezu: “Ume horrek mugak behar ditu musu puntan jartzen zaiona egiten duelako, eta nonbaitera ez igotzeko esaten diozu, eta igo egiten da”. Hori mugen ikuspuntu bat da. Niri interesatzen zaidan beste ikuspuntua helduen mugena

“

Guraso titulua jasotzen dugu umea jaio delako, baina oso gutxi heltzen gara prestatuta guraso izatera”

da; Nik ez badut nahi barandara igotzea, seguru egon nahi dudalako da minik hartu gabe ibiliko dela, eta hori horrela izan dadin nire esku dagoen dena egin nahi dut. Eta muga hori nirea denez, haurrak nire muga zein den ezagutu behar du, eta hori errespetatua izateko jartzen dudana zuzentasunez iristea. “Nik seguru egon nahi dut minik hartu gabe ibiliko zarela, eta ez nago lasai, beldur naiz. Horregatik eskatzen dizut hortik jaistea (edo arrisku handia bada, hartu eta jaitsi egingo dut)”. Askotan ezetz esate hutsarekin geratzen gara. Muga jarriko dut nire beharretatik hitz egiten, eta aldi berean, ahaleginduko naiz

umearen beharrak ulertu eta beste modu batera eskaintzen, zuk bilatzen duzuna, baina nire lasai egonda.

Debeku kontuak aipatu dituzu. Ezezko asko entzuten dute umeek?

Uste dut ezetz hutsaren bidez mugak ipintzeko modua inori ez zaigula gustatzen, helduoi ere ez. Imajinatu ondoan etengabe beste norbait edukitzea esaten zer ez dudan egin behar, nola egin behar dudun, aginduen bitartez, mehatxuen bitartez, konparazioekin: “zure anaia txikia begira nola dagoen, eta zu?”... Nik ez nuke askorik iraungo pertsona horren ondoan. Guri horrenbeste ezezkok haserre, inpotentzia, mina, sortzen badiogu, umei ere, berdin-berdin. Ez dut esan nahi ezezkorik ez dela esan behar. Argi daukat ezin dizudala utzi bost ordu telebista ikusten, edo jatorduan ezer jan ez, eta gozokiak jaten. Kontua da ezezko hori nola zaintzen dudun. Ezezko batzuk agian entzunda dauzkate, eta horregatik diot etxean hanka-hutsik ezin dela ibili. Ikusi beharko da pertsona bakoitzarentzako nolako ezezkoak diren garrantzitsuak. Ezezko asko badago, debekuak tentatzaileak dira, saltatu egingo dituzte.

Adimen emozionala landuko duzue Guraso Eskolan?

Bai, emozioen kontzientzia hartzea garrantzitsua da, baina ez hori bakarrik. Emozioen jatorria ulertzea oso baliotsua da eta gure beharretan dago. Esan dezaket, “haserre nago, ez duzulako bazkaldu”. Haserrearen arrazoiak bestearen jokabidean jartzen dugu, eta nire ustez klabea da ulertzea gure emozioen motiboa ez dela besteek egin dutena; nire beharrek aktibatzen dute emozio hori. Arduratuta nago ez nagoelako seguru ama moduan zu osasuntsu egoteko egin behar dena egiten ari ote naizen. Askotan nire indarrak batuko ditut bestea aldatzen, eta umea aldatzen ahalegintzea urrutiti dago lortu nahi ditudan elkarbizitzarako helburuetatik. Guk argi eduki behar dugu lehenengo zer sentitzen dugun, eta horrek lagundu egingo digu egin eta esan beharrekoak argiago ikusten. Garrantzitsua da nire beharrak zeintzuk diren deskubritzea, eta behar horiei soluzioa jartzea.

Soluzio magikorik, orduan?

Ez, ez dago horrelakorik. Ez dago jatorduak kudeatzeko edo lotara joateko errezetarik. Guraso bakoitzak bere bidea bilatu behar du bere premietatik abiatuta.

Iritzia

> GUTUNAK



gutunak@anboto.org
eguztaren 17:00ak arteko epea

Erasotzaileak eta bortxatzaileak kanpora!

Amorraturik eta haserre gaude zapatuan emandako eraso matxistarekin.

Hala ere, ez dezagun ahaztu azken kasu hau ez dela bakarra. Zoritxarrez bortxatzaile eta erasotzaile gehiago ditugu Durangon eta, kaletik bizitza arrunta egiten dute gainera. Argi dago matxista guztiek ez dutela tratamendu bera jendarte zein instituzioen partetik. Eta inkoherentzia hauek salatu nahi ditugu.

Durango Bilgune eta Txoko Feministatik argi utzi nahi dugu honen aurrean ezin dela ikusle bezala jardun, inplikaturik gaudelako denok. Jendarte guztia. Arazoa estrukturala da, ez dira kasu isolatuak. Eta arazoa ez dira alkohola edo buru gaixotasunak. Arazoa ideologikoa da, sistema patriarkarra erroturik daukatela eta emakumeekin edozer egin dezaketela uste dutela. Ez da nahikoa "hori burutik jota dago" esatearekin. Ezinbestekoa da posizionatzea: Erasotzaileak babesten dituzu ala emakumeon eskubideak defendatzen dituzu.

Durango jaixek ate joka ditugu eta badakigu zenbaitetan jai giroa aitzakia perfektua bihurtzen dela erasoak ezkutatzeko. Denon ardura da hau ekiditea. Eta emango balira salatzea, horretarako adi ibili mugimendu feministak planteatzen dituen dinamiketara. Kalejirak, kontzentrazioak, erasoak salatzeke telefonoa, protokoloa... Azken hau txosnetatik eta Durango zenbait tabernetan bistara izango duzue.

Ez dugu bat ere onartuko!
Erasorik ez, erantzunik gabe!
Gora borroka feminista!

Durango Txoko eta Bilgune Feminista

Inpotentzia isila

Aurreko asteko barikuan Iurretako plazara hurbildu ginen, kontzertuetaz disfrutatzeko eta lagun artean ondo pasatzeko.

Momentu batean, bi lagun plazatik aldendu, eta Abadetxe atzean egon ginen, bi kotxeren artean. Une horretan, inguru berean, gutaz aparte beste gizon bat ere bazebilen (40 urte inguru, burusoila eta tripa handiduna). Ez genion garrantzi handirik eman, gugana hurbiltzen zegoela konturatu ginen arte: guri begira eta bere genitalekin lizunkeriatan ari zela konturatu ginen arte. Beldurtu, eta berari zarataka hasi ginen; orduan bertatik aldendu egin zen, ezer pasatu izan ez balitz moduan!

Egoera horren aurrean zer egin? Zelan jokatu? Eraso guztiek erantzuna behar dute!

Jendartetik urruntzerakoan, zergatik sentitu behar dugu belurra emakume izatearren? Zergatik ezin gara edozein leku eta momentutan seguru sentitu?

Horren harira, pasa den asteburuan Durango gertatutako eraso ere salatu nahi dugu.

Gauak, kaleak, kotxe arteak, elizpeak, komunak... gureak ere badira! Eraso gehiagorik ez!

Leire eta Maialen, Durango eta Iurretako bi neska

Anboto Zornotzara

Zornotzan euskaraz bizi gura dogun lagun talde bat alkartu gara kezka nagusi batez. Euskara hutsean egindako komunikabide baten falta dagoela ikusi dogu.

Gure inguruetara begiratu, eta hainbat topatu doguz: Begitu Arratian, Busturialdeko Hitza, Anboto Durangaldean, etab. Azken hori begitandu jaku aproposa Zornotzara ekartzeko. Urte askotako esperientzia daukielako, eta profesionaltasun handiz astero euskarazko barriak argitaratzen dituelako.


Horretan ibili gara azkeneko hiletan, eta eskuragarri daukagu orain herriko hainbat lekutan: Zelaieta Zentroan, anbulatorioan, kiroldegian, tabernetan, Nafarroa Zentroan, euskaltegietan...

Baina oraindano Zornotzako barriak ez dira bertan agertu, udaletik publiek reportajeak jartzeko konpromisoa hartu da, baina hori baino gehiago behar dogu: Zornotzako berriak, zornotzarron intereseko kontuak Anboto astero agertzea, hain zuzen bere.

Udalak horretan ardura handia dauka, eta hein handi batean euskaraz bizi gura dogunok bere badaukagu zeregina:

Hartu egizu Anboto gorago aipatutako banaketa lekuetan, irakurri eta zabaldu inguruko artean, danon artean lortuko dogulakoan gagoz!

Igor Areitiobiritxinaga Txarterina



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

• Izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP



Fiskalitate enplegu sortzailea

Krisi egoeran erakundeek irudimentsu eta ausart jokatu behar dute dirua erabiltzeko orduan. Baliabide gutxiagorekin gauza berberak egiteak buruhausteak sor diezazkioke momentuko ardura daukan kudeatzaileari. Horregatik, batzuek biderik errazaren alde egiten dute. Hori, urterik urte, fiskalitatearen inguruko eztabaida erabiltzen dute betikoei presio egiteko, hau da, herritarrei.

Badirudi hori dela EAJk hartu duen bidea. Baita Durango ere. Udal gobernuak, zergei eta herri-tasei bideratutako batezbesteko zerga-ordainketa iaz baino %2,2 gehiago izango dela iragarri du.

Zerga igoera horren aurrean, arduraz jokatu behar dela, eta gabezia kudeatzen jakin behar dela uste du PPK. Eta, horregatik, 15 zuzenketa aurkeztu dizkiogu EAJren gobernuak aurkeztutako proiektuari. Herriko ekonomia sustatzera bideratutako proposamenak, esaterako, herrian saltoki edo negozio bat zabaldu nahi duenari %75eko beherapena ezarri beharko litzaike tasetan.

Ekintzaileei hobekuntzak egitea ezinbestekoa da, beraiek sortzen dutelako lau lanpostutik hiru, eta baliabide gutxiago duten familiei zerga beherapenak egitea ere beharrezkoa da.

Krisiaren erruz egoera zailenean bizi direnei aldapa gogortu nahi dietenen aurrean, PPK merkataritza aktibitatea sustatu duen politika fiskala ezarri nahi du, eta, era berean, langabetuen eta bitarteko urriak dituzten pertsonen ekonomia jipoitua arindu.

** Erredakzioan itzulia*

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurretako
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko urriaren 4a
11. urtea - 516. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Asier Bilbao | Durango, 1969. | Zinema ekoizlea

«30-40 urteko jende askok ikusiko du bere burua islatuta»

Asteburuan Durangoko zineman emango dute Baleukok, bertako ekoiztetxeak, sorturiko 'Amaren eskuak' filma. Asier Bilbao izan du produktore

> ITSASO ESTEBAN

Zelakoa izan zen joan zen aste-ko Donostiako Zinemaldiko es-
perientzia?

Polita, berezia: oso hurbileko jendea bildu ginen galan. Ema-
naldia amaitu bezain pronto txalo-
loka hasi zen jendea. Aparteko
beste bi pase izan dira, eta oso
harrera ona eduki du.

Irakurri ditugun kritikak filma-
ren oso aldekoak izan dira.

Orokorrean oso positiboak izan
dira, bai, nahiz eta, bestelakorik
ere egon den. Aktoreen lana, eta
pelikulak nobelaren zentzua
galdu ez izana goraipatu dute.

Zinemaldiko euskarazko fik-
ziozko lan bakarra izateak pre-
sio berezia sortu dizue?

Presioa baino gehiago, tristura.
Zinemiran parte hartu dugun
bederatzi proiektuetatik fikzioz-
ko euskarazko film luze bakarra
izan da gurea. Eta hori ez da
kasualitatea. Horren atzean da-
goena da, zinema egitea gero eta
konplikatuagoa dela. Are gehia-
go, euskaraz bada.

Baleuko horretan ari da.

Bai. *Eutsi!* egin genuen, gero

*Izarren argia, Gernika bajo las
bombas, eta Amaren eskuak*
orain. Lortu dugu beste bat egi-
tea, eta berez, garaipena da eus-
karazko film bat egitea: txikia,
baina aurrerapauso inportan-
tea da euskal kulturgintzan.

**Aktore talde oso aproposa
osatu duzue.**

Bai, badirudi asmatu dugula
aktoreekin. Ainara Gurrutxaga
da, esaterako, aktore nagusia;
antzerkitik dator, eta aurpegi
freskoa da. Loli Astorekak ere,
ezaguna dugun arren, bestelako
papera antzezten du.

“

*Zinema egitea gero
eta konplikatuagoa
da. Are gehiago,
euskaraz bada”*

**Euskaraz gainera, gaztelania
eta ingelesa ere entzuten dira.**
Hizkuntzaren erabilera berezia
egin dugu. Gaztelania eta inge-
lesa ere sartu ditugu filmean.



Nereak eta Lewisek ingelesa
darabilte, Ingalaterran ezagutu
zutelako elkar, eta hori delako
euren harremanerako hizkun-
tza. Ospitaleko gelakidea erdal-
duna delako, gaztelaniaz ere
mintzatzen dira protagonistak.
Solaskideen arabera, hainbat
euskara mota ere entzuten da:
ez da berdina Nereak izekorekin
egiten duen euskara, edo Maite
lagunagaz egiten duena... Lan
handia egin dugu horretan.

**Liburua pelikula bihurtzeko la-
na zelakoa izan da?**

Gidoia idaztea oso prozesu luzea
izan da. Hasieran gidoilari bat
eta Karmele Jaio idazlea elka-
rrekin hasi ziren, eta hiru-lau
bertsio egin zituzten, baina ez
genuen argi ikusten nondik jo.
Josu Bilbaok egin du azkenean

gidoia, eta uste dut asmatu du-
gula. Karmelek askatasun osoa
eman zigun gidoia egiteko, eta
oso gustura gelditu da.

**Noiz eta zelan ekin zenioten
'Amaren eskuak' proiektuari?**

Eduardo Barinagak egin zuen
hasierako lana: hark ikusi zuen
pelikula bat zegoela hor. Bere-
zia izan da lan erritmoa, nobela
dagoelako oinarrian. Guztira
bost-sei urteko lana izan da.

Zer berezitasun dauka filmak?

Batetik, gaurkotasan handi-
ko gaia lantzen du, hurbila eta
sinesgarria da. Uste dut, 30-40
urteko jende askok bere burua
islatuta ikusiko duela. Bestetik,
unibertsala da: mendebaldeko
gizarte garatueta oso zaila da
lana eta familia uztartzea.

Amaiera irekia du filmak.

Bai, baina mezu positiboagaz
amaitzen da: Nereak ama itsa-
sargira daroa, eta film hasieran
bezala, 'altxa burue' esaten dio
amak. Txarto dagoela eta geldi-
tu beharra duela konturatzen
da Nerea: azken urteetan 'presa-
koak, benetan garrantzitsua de-
na' zapaldu dutela bere bizitzan.
Ohartzen da ez dela ailegatzan
benetan inportantea dena, eta
hori aldatzeko bere bizitzaren
gidaritza berreskuratzen du.

**Asteburuan Durangon izango
da 'Amaren eskuak' ikusgai.**

Bai. Lau emanaldi izango di-
ra, asteburuan, Zugazan. Libu-
ruak irakurle asko eduki ditu,
eta orokorrean oso kritika onak
eduki ditu: espero dugu ikusle
asko elkartzea bertan.

“Oso betegarria izan da aktore hauekin lan egitea”

Mireia Gabilondok (1964, Bergara) zuzendu du filma

**Zer azpimarratuko zenuke
'Amaren eskuak' lanetik?**

Pelikulan emozioez, sentimen-
duez, eta giza harremanez zelan
hitz egiten den oso gustuko dut.
Mezuagaz ere oso bat nator: ez
dago beste sekreturik bizitzari
aurre egitea, eta aurrera jarrai-
tzea baino.

**Asko errespetatu dituzue Kar-
mele Jaioren liburuak irudiak.**
Bai, izan ere, asko gustatu zi-
tzaidan liburua: oso interesga-
rria dela, eta oso ondo idatzia
dagoela uste dut. Liburuak iru-

diak oso aproposak zirela irudi-
tu zitzaidan. Argi neukan hori
izango zela zutabea: oso gertuko
sentitzen dut kontatzen duena,
eta oso atsegina izan da libu-
ruan oinarrituta lan egitea.

**Noiz eskatu zizun Baleukok
pelikulan sartzea?**


Urteak dira. Grabaketa aurre-
tiko prozesua ere oso prozesu
luzea izaten baita: liburua ira-
kurri, berba eta bilera asko
egin, gidoia aztertu, aktore eta
teknikari taldea hautatu... Eta,
gero, pelikula egiten hasi.

**Zein izan da proiektu honeta-
ko zure erronka nagusia?**

Hainbeste denboran, une ba-
tzuetan nekatuta ere egon
arren, proiektuaren alde egin,
eta zure horretan mantentzeak
esfortzua eskatzen du. Ibilbi-
de oso luzea da: une batzuetan
iraupe-proba bat ematen du.

Zer egin duzu gusturen?

Aktoreekin lan egitea da gehien
gustatzen zaidana, eta alde ho-
rretatik, oso gustura jardun
dut. Oso betegarria izan da ak-
tore hauekin lan egitea. Erraza
eta polita ere bai. Lankide guz-
tiekin jardun dut oso gustura:
Gonzalo Berridi argazki zuzen-
dariagaz, Pascal Gaigne musi-
kariagaz, filma muntatu duen
Maialen Sarasuagaz...



> **ITSASO ESTEBAN**

Andres Granadosen ahaleginez gaur egun Durangoko Orfeoia-
ren entsegu lekua den lokalean
aurkeztu dute haren lagunek
Granadosen omenezko kontzer-
tua. Hil arte Durangoko Tabira
Musika Bandaren presidente
izan zen Andres Granados, eta
musikaren munduan bidaide
izandako lau ordezkari aurkez-
tu dute domekako kontzertua.

Arandoño kultur elkarteko
Xabier Arana, Jaizale txistulari
elkarteko Juan Antonio Aroma,
Durangoko Orfeoiko Arrate
Bañeres, eta Herri Maite talde-
ko Antonio Nuñez elkartu ziren
martitzenean, etziko antolatut
duten kontzertu bereziaren be-
rriematera.

Ekainean hil zen Andres Gra-
nados, eta urriaren 6an egingo
diote omenaldia. Aurkezpenean
Xabier Aranak esan duenez,
“guk dakigun eran egingo diogu
omenaldia: musika eginez”.

Guztira, 150 musikari batu-
ko dira Durangoko Andra Mari
elizako omenaldi horretan, eta
Granadosek berak sortu edo
moldatutako hainbat kanta es-
kainiko dituzte: Granadosek
bere herriarentzat sortutako
Herri maite, edo *Azken agurra-
ren negarra* kasurako. Aromak
azpimarratu duenez, lehenengoz
joko dute Granadosen kantu ho-
rren txisturako moldaketa.

> **MUSIKA**

Andres Granados omentzeko kontzertu berezia, domekan

Ekainean hil zen musikari durangarraren lagunek antolatu dute ekimena



Xabier Arana, Antonio Nuñez, Arrate Bañeres eta Juan Antonio Aroma.

Jaizale Durangaldeko txistu-
larien elkarteak, Orfeoia, He-
rri Maite akordeoi taldeak, eta
Tabira musika bandak joko dute
kontzertuan, eta, Andres Grana-
dos kide izan zen Bilboko Udal
Txistulari Bandak eta Elgoibar-
ko musika bandak ere parte har-
tuko dute omenaldian.

Antonio Nuñezen berbetan,
“ez dakit badagoen modurik An-

Antonio Nuñez: “Ez dakit
badagoen modurik
Andresek Durangoko
musikaren alde egin zuen
lan guztia eskertzeko”

dresek Durangoko musikaren
alde egin zuen lan guztia esker-
tzeko, baina espero dugu herrita-
rrek behar bezala erantzun, eta
eliza txiki geratzea”. Durangoko
musikaren historiari buruzko
dokumentazioa bildu, musika
idatzi eta moldatu, eta musika-
ren eta musikarien duintasuna-
ren alde lan handia egin zuen
Andres Granadosek.

> **MUSIKA**

Operari eta musika klasikoari buruzko saioak, musika eskolan

Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolaren eskaintza dira ikastaro biak

> **I.E.**

Musika klasikoaren eta opera-
ren inguruko ikastaro bana es-
kainiko dute Durangoko Barto-
lome Ertzilla Musika Eskolan.
Urritik abendura izango dira
ikastaroak.

Beethoven, Stravinsky eta
Gerswhinen lanak hartuko
dituzte musika klasikoaren
inguruko monografikoan ber-
bagai, eta musikaren historian
mugarri diren obrak entzun eta
landuko dituzte.

Operari buruzko ikastaroan,
bestalde, ikuspuntu zinemato-
grafikoa landuko dute. Opera

Beethoven, Stravinsky eta
Gerswhinen obrak landuko
dituzte musika klasikoaren
inguruko monografikoan

Operari buruzko ikastaroan
ikuspuntu zinematografikoa
landuko dute, opera eta
zinema ardatz hartuta

zinemaren aitzindari izan zela
kontuan hartuta, bien arteko lo-
turez ariko dira ikastaroan.

Asteon egin dute ikastaroa-
ren lehenengo saioa. Durango-
ko Kurutzesantu Museoa batu
ziren martitzenean, 19:00etatik
20:30era izango da hitzordua.

Ikastaroa hasita egon arren,
parte hartu gura dutenek hiru
aukera dauzkate izena emateko:
musika eskolaren webgunearen
bitartez, eskolako idazkaritzara
gerturatuta, edota ikastaroaren
egunetan Durangoko Kurutze-
santu Museora bertaratuta ere
eman daiteke izena.

> **ZINEMA**

‘El alcalde’ dokumentala urriko eskaintza, Elorrion

Iaz Mexikon ekoiztiriko *Alkatea*
dokumentala eskainiko du, Elo-
rrioko Iturri kultur etxean, Hilean
Behin ekimenak. Urriaren 10ean,
19:30ean izango da emanaldia. Me-
xikoko errealtateari buruzko fil-
ma da: boterearen eta indarkeria-
ren arteko harremanaz, drogaren
negozioaz, zein mugimendu politi-
ko edo ekonomikoez.

Aho bizarririk barik egin du ber-
ba bertako alkate izandako Mauri-
cio Fernandezek bera alkate izan
zen San Pedro hiriaren egoerari
buruz. Berea Mexikoko hiri abe-
rats eta seguruena izateaz harro
dago Fernandez.

> **GEURE DURANGALDEA**> **JON IRAZABAL**

Gerediaga
elkartea



Ermutik Astolara

1968an bete ziren Euskaltzain-
diaren urrezko ezteiak. Urte
hartako akademiako lehen bat-
zarrean onartu zen burutuko
ziren jardunaldiak euskara-
ren batasunaren inguruan
egitea. Kongresu hark bi eki-
taldi izango zituen. Arantza-
zun burutuko zen jardunaldi-
a, eta Oñatin ekitaldi akade-
miko zabala non kongresuko
gomendioak onartuko ziren.
Baina... uda hartan Gipuzkoa
salbuespen egoeran jarri zuen
Madrilek, eta batzartzeko es-
kubidea indargabetua gelditu
zen hiru hilabetez. Jardunaldi-
en aurretik, ekainaren 28tik
30era, programatuta zegoen
gaiari buruz eztabaidatzeko
Euskal Idazleen Biltzarra
egitea. Biltzar hori ere Gipuz-
koatik atera behar izan zen.
Ermuan burutu zen Geredia-
ga Elkartearen eskutik.

Arantzazuko jardunaldiak
urriaren 3tik 5era burutu
ziren gobernadore zibilaren
hitzezko baimenarekin. Oña-
tiko ekitaldia ere onartzeko
prest zegoen, baina giroa ez
zen egokiena. Ehunka ziren
poliziak atxilotu eta tortura-
tuak Gipuzkoa osoan. Oñatiko
San Migel jaiak ere boikota-
tuak izan ziren herritarren
aldetik. Giro hori ikusirik,
Euskaltzaindiak unibertsita-
teko ekitaldia bertan behera
utzi zuen. Baina... aurrera
jarraitzeko Arantzazuko go-
mendioak onartu behar zi-
tuen akademiak. Azaroaren
3an, Durangoko 3. Azoka zela
eta Euskaltzaindiak bere bile-
ra burutu zuen Gerediagaren
egoitza zen Astolako etxean.
Lekuona euskaltzainburuak
zuzendutako batzar horretan
euskara batuaren oinarriak
onartu ziren ofizialki.

Azaroaren 3an, 45 urte be-
teko dira euskararen batasun-
erako trena abiatu zela. Mila
esker “Fogonero” guztiei!

h!t
liburudenda

artekalea, 14
durango
946 810 776
info@hitliburudenda.com

Cie leandre
Rien à dire

Urriaren 5ean • 20:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URRIAK 5 - 23:00etan 10/12 euro
DINERO + Kometa
Biraren azken zuzenekoak

URRIAK 19
DEAFFEST
Musika kilometroak
http://www.facebook.com/deaffestival

URRIAK 24 - 20:00etan 15 euro
KANTULAGUN
Kantulagunen txokoa

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

JAIK!

San Fausto

2013ko Urria | DURANGO

SAN FAUSTO JAIK 2013
DURANGO



ALRI

barne dekorazioa

Mikeldi 6, 48200 Durango • 946 813 895



JAIEN EGITARAUA

Urriak 5, zapatua

08:00 Perretxikoen bilketa: irteera Ezkurditik.

17:00 Gizonezkoen Lehen mailako saskibaloia, Landako kiroldegian: Tabirako Baqué-Bide Bide Donosti.

18:00 XXX. San Fausto Zesta-punta Txapelketa Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

20:00 Klown antzezlan: 'Rien à dire' (Leandre), San Agustin kulturgunean.

Urriak 6, domeka

08:00 XLV. Durangaldeko gailurrak.

10:00 XXXIX. San Fausto Marrazki Lehiaketa, San Fausto auzoan. Izena ematea: 10:00etatik 12:00etara.

10:00 VIII. Durangoko Duatloi Herrikoa, Santa Anatik irtenda.

11:00 XIV. Mikologia Erakusketa, Argazki mikologikoen XIII. Lehiaketa, eta Perretxikoak sailkatzeko XIII. Lehiaketa (16 urtetik beherakoentzat) Merkatu plazan.

12:00 XXX. San Fausto Zesta-punta Txapelketa, Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

Urriak 7, astelehena

Nagusientzat mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera. Izena ematea dohainik Adinekoentzako Udak Egoitzako kafetegian, urriaren 6ra arte. Plazak zozketa bidez emango dira.

Urriak 11, barikua (Txupinazoa eta jaien hasiera)

I. Argazki Lehiaketaren hasiera. Azken eguna, urriaren 16ko 20:00ak arte: 'f.stop.durango@gmail.com' helbidera. Informazioa: 'www.f-stopdurango.org'.

17:30 'Zabu Zibu' umeentzako ikuskizuna, Ezkurdin.

19:00 Erraldoiak eta buruhandiak, Alde Zaharreen.

19:00 Patxikotxuri harrera, San Fausto auzoan. Ondoren, kalejira Sugarri fanfarreagaz udaletxeko plazara.

20:00 Txupinazoa eta jaietako pregoi ofiziala. Dendak Bai elkarteak pregoia irakurri, eta txupinazoa botako du. Gora San Faustoak!.

20:30 Kalejira udaletxetik Txosnagunera.

21:00 Txupinazoa txosnetan, Durango 1936 kultur elkartearen eskutik.

21:00 Ekialdeko dantzen erakustaldia, Andra Marian.

22:00 Kontzertuak txosnetan: Shokasalto, The Mockers, The Capaces eta Capsula.

23:00 'Las Durangas, bizi bizirik' ikuskizuna, Andra Mariko elizpean.

23:00 Kontzertuak Landako Gunean: La Txusta de Morta + We Are Standard.

Urriak 12, zapatua (Umeen Eguna)

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 'Zezenak dira', dultzaineroekin.

10:00-14:00 Artisautza erakusketa, San Fausto auzo elkartearen lokalean.

10:00 Eskupilota jaialdia, San Fausto pilotalekuan.

11:00-14:00 Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

11:00-13:00 Umeentzako tailerrak, Ezkurdin. Andra Marin, umeentzako xake txapelketa.

11:30 Kalejira txistulariekin.

12:00 Kulturartekotasunaren jai: aniztasunean berdintasuna, San Jose Jesuitetan.

12:00 Erraldoi eta buruhandiek kalejira txiki eta ez hain txikientzat, Ezkurditik Alde Zaharrera. Udaletxeko plazan, sormen eta musika tailerrak.

12:30 Burruntzian egindako okela pintxoak Andra Marian. Kantu-poteoa Alde Zaharreen. Txosna Batzordea.

12:30 XIII. Durango Hiria margo lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdi udal aretoan.

13:30 Txupinazo Txikia eta pregoia udaletxeko balkoitik: Durangoko Pilotazale Elkartea. Ondoren, Ohorezko aurrekua.

15:00 Gazte bazkaria, txosnetan. Ondoren, bertso saioa eta olinpiadak.

16:00 Astronomia tailerrak, udaletxeko plazan.

16:30 Errugbi partidua, Arripausuetan: Durango Rugby Taldea-Zarautz R.T. (estatuko ohorezko B maila).

16:30-19:30 Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).

17:00 Haur-motorren kontzentrazioa, Andra Maritik hasita. Bi eta bost urte bitarteko umeak. Izen-ematea: Pinondo Etxean, urriaren 10era arte.

17:30 Umeentzako pailazoak, Ezkurdin. Txosna Batzordea.

17:30 Arte martzialen erakusketa, eta kalejira, Alde Zaharreen.

18:00 Txokolatada, Andra Mariko elizpean.

18:30 'Gaur jaia' haurrentzako ikuskizuna (Xilipurdi), Andra Marian.

19:00 Emakumezkoen Lehen mailako saskibaloia, Landako kiroldegian: Tabirako Baqué-Portugalete.

19:00 'Medieval' antzezlan (Main to Mano), Santa Anan (euria bada, Nevers ikastetxean).

19:30 Kalejira Senegaleko erritmoeekin, M'LOMP elkarte durangarragaz. Udaletxeko plazatik.

20:00 Kalejira Elektrotzaranga Orkestragaz. Txosna Batzordeak antolatuta.

21:00 Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean.

21:00 Suzko zezena Ezkurdin.

21:00-00:00 Indarkeria sexistatik gabeko txokoa, Txosnagunearen ondoan. Informatu eta jardun. Berdintasunerako Batzordeak eta Kontseiluak antolatuta.

22:00 'Romeo' obra (Teatro Meridional), San Agustin kulturgunean.

23:00 Kontzertuak txosnetan: Sermond's, Cobra eta Anestesia.

23:00 La Pasarela orkestra, Ezkurdin.

Urriak 13, domeka (San Fausto eguna)

07:00 Diana txistulariekin.

07:30 'Zezenak dira', dultzaineroekin.

09:00 XXIV. San Fausto Calva Txapelketa, Murueta Torren.

10:00 Marmitako txapelketa, Landako Gunean.

11:00 Meza nagusia, San Faustoko elizan.

11:00 Paella txapelketa Txosnagunear. Sari banaketa 14:00etan.

11:00-14:00 Tombs Creatius jolasak familia osoarentzat, Ezkurdin (euria egiten badu, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

11:30 Kalejira txistulariekin.

11:45 Tabira Musika Bandaren emanaldia, J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 XXX. San Fausto Zesta-punta Txapelketaren finalerdiak, Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

12:00 Paella txapelketa, San Fausto auzoan. Gure San Fausto Berriak antolatuta (bakoitzak beharrezko tresna eta osagaiak ekarriko ditu, arroza izan ezik). Izena ematea 12:00etatik aurrera, San Fausto auzoan.

12:30 Txalaparta udaletxearen aurrean. Ohorezko aurrekua eta ohiko artopila banaketa. Ondoren, Durangoko dantzariak.

16:00 Poniak San Fausto auzoan.

16:30 Musika emanaldia Landako Gunean: Akerbeltz. Marmitako lehiaketaren ondoren.

17:00 Mañaria errearen jaitiera, Tabiran hasita. Txosna Batzordea.

17:30 Txokolatada eta haurrentzako jolasak, San Fauston.



CHAVES

TAPIZAK
MOKETAK
ALFONBRAK
GORTINAK

LARRUKIAK
LANERAKO BABES-JANTZIAK
INDUSTRIAKO HORNIGAIK

DENDA ETA ERAKUSKETA:
Erretentxu, 28 behea
DURANGO

Tel.: 946 811 180
Faxa: 946 200 938



OIZ

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA BEROGAILUAK
ERAKUNTZA S.L.

SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK
BAINUGELARAKO ALTZARIAK

BILTEGIA UAI Industriagunea, 2 C - 48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545

ERAKUSKETA - DENDA Plateruen Plaza, z/g.
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545



GALLASTEGI

1955ean sortua

www.gallastegiharategiak.com

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

18:00 Toricos de la Navarrería-ren entzierro txikia, Santa Anan eta Alde Zaharrean (euria bada, San Antonio-Sta Rita ikastetxean).
18:00 Kalejira Tabira Musika Bandagaz.
19:00 Kontzertua: Tabira Musika Banda, Andra Marian.
19:00 ‘Collage’ tranpolin ikuskizuna (Bot Project konpainia), Ezkurdin (euria bada, Nevers ikastetxean).
20:00 Erromeria Ezkurdin: Luhartz.
22:00 Kontzertuak txosnetan: Las Disasters eta Hobo.
Urriak 14, astelehena
07:00 Diana txistulariekin.
07:30 ‘Zezenak dira’, dultzaineroekin.
10:30-14:00 Txu-txu trenea Landako ikastetxearen aurrean.
11:00 Gaztelu puzgarriak eta umeentzako tailerrak Santa Anan (eguraldi txarragaz Andra Marian). Txosna Batzordea.
11:00-14:00 Txirrista erraldoia Landako ikastetxean.
11:00-14:00 Katakarak umeentzako jolasak Landako eskolan (euria bada, Merkatu plazan).
11:30 Kalejira txistulariekin
12:00-18:00 San Fausto grafiti erakusketa Merkatu plazan.
14:00 Bazkaria nagusientzat Landako Gunean, Duo Twister-ek girotuta.
16:00-19:00 Txirrista erraldoia eta ‘jumping’-a Landako ikastetxean.
16:00-20:00 Haur parkea Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta Rita ikastetxeko patioan).
16:30-19:00 Txu-txu trenea Landako ikastetxearen aurrean.
17:00 Mago Madiber, Ezkurdin (euria bada, San Agustin kulturgunean).
17:30 Kontzertuak txosnetan: Moby Dick eta Ainara Legardon.
19:00 ‘Mediopelo’ antzezlan (Ganso&Cia), Andra Marian.
Urriak 18, barikua
17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak, Ezkurdin. Simulazioa 19:00etan (euria bada, Landako Gunean).
18:00 Tortilla txapelketa txosnetan. Sari banaketa 19:30ean.
19:30 XXVIII. Cafés Baqué eskupilota txapelketaren finala, Ezkurdi Jai-Alai frontoian.
22:00 Vocal Tempo a capella taldea, Andra Marian.
22:00 Kontzertuak txosnetan: Seiurte, Anai-Arrebak eta Belako.
22:30 Bertsolariak San Agustin kulturgunean: Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Jone Uria, Nerea Ibarzabal, Jon Maia eta Sustrai Colina. Gai Jartzaillea: Josu Goikoetxea.
Urriak 19, zapatua. Mozorro Eguna.
07:00 Diana txistulariekin.
07:30 ‘Zezenak dira’, dultzaineroekin.
10:30-14:30 Xake txapelketa federatubakoentzat, Ezkurdiko aterpean.
11:00 Nekazaritza azoka, Merkatu plazaren inguruan.
11:00-14:00 Skate eskola Zutundu elkartegaz, Ezkurdin.
11:00 Umeentzako mozorro tailerra, Andra Marian.
11:30 Kalejira txistulariekin.
12:00 VI. Tortilla Txapelketa, Merkatu plazan. Izena ematea: Pinondo Etxean, urriaren 15era arte.
12:00 Trikitia Alde Zaharreko giroa animatzeko Txiri-Txiri taldeagaz.
12:00 Kalejira Durangoko Orfeoia gaz, Alde Zaharrean.
13:00 Triki-bertso poteoa Alde Zaharrean. Txosna Batzordea.
13:00 Haurren mozorro desfilea eta sari-banaketa Andra Marian.
15:00 Herri bazkaria txosnetan. Gero, eskul anen azoka txikia.
16:00 Kontzertuak ‘Deaffest Musika Kilometroak’. Landako Gunean: Seals (16:15), Moksha (17:00), On (17:45), Crisisx (18:30), Porco (19:30), Willis Drummond (20:45), Non Servium (22:00), Berri Txarrak (23:15), Juantxo Skalar i (00:45) eta Cohen (02:00). Plateruenan: Sr Mit (19:00), Krome (19:45), Subestimados (20:30), Herri Oihua (21:15), Amodio (22:00), Kokein (23:00), Indarrap (00:00), Metenguer ra (01:00), Glaukoma (02:00) eta Nao (03:00).

17:00 Futbola Tabira zelaian: Durango Kulturala-Leioa S.D.
17:00 Saskibaloia Landako kiroldegian: Tabirako Baqué-Leihoak Zarautz (gizonezkoen Lehen mailako partidua).
17:00 Animazioa trikitiarekin, nagusien egoitzan.
18:00 Umeentzat ekingta sorpresa txosnetan. Ondoren, Elkartasun argazki erraldoia.
18:30 Taldekako mozorro desfilea, Madalenatik Andra Marira. Gero, sarien zozketa. Izena ematea: Pinondo Etxean.
18:30 Kalejira Alde Zaharrean: Sugarri Show.
19:00 ‘Lapsus Kabaref’ ikuskizuna (malabareak, magia, klownak, kontortsionistak...), udaletxeko plazan (euria bada, Nevers ikastetxean).
20:00 Kontzertua Txosnagunean: Ghetto.
20:00 Animatu aurpegia margotzera Alde Zaharrean. Arte Bizia.
20:00 Jon Urbietta eta Oihan Vega Djak, Andra Marian.
21:00-00:00 Indarkeria sexistari k gabeko txokoa, Txosnagunearen ondoan. Informatu eta jardun. Berdintasunerako Batzordeak eta Kontseiluak antolatuta
21:00 Suzko zezena, Ezkurdin.
21:30 Animazioa Alde Zaharrean: Ghanako txaranga.
23:00 Kontzertuak txosnetan: Gibelurdiñek eta Luhartz.
23:00 Nuevo Talisman orkestra, Ezkurdin.
00:00-03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, eta ‘testing’ programa Ai Lake! elkart aren eskutik, txosnetan. Durangaldeko Amankomunazgoa.
Urriak 20, domeka (Ingurumenaren Eguna)
07:00 Diana txistulariekin.
07:30 ‘Zezenak dira’, dultzaineroekin.
10:00-14:00 Haur parkea, Ezkurdin (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxeko patioan).
10:00-14:00 Areta-futbol txapelketa 3x3, Merkatu plazan. Baita 16:00etatik 20:00etara ere (izena ematea Pinondo Etxean, urriaren 15era arte.
11:30 Kalejira txistulariekin.
11:30 Bizikleta jaia familia osoarentzat, Andra Mariatik irtenda.
12:00 XXX. San Fausto Zesta-punta txapelketaren finalak, Ezkurdi Jai-Alai frontoian.
12:00 II. Padel Txapelketaren finalak, Landako Kirol Gunean.
12:00 Zatoz ponian ibiltzera, Landako parkean.
12:00-14:00 Arku tirorako gunea, Landako parkean.
12:30 Hegazti harrapakarien erakustaldia, Santa Ana plazan.
12:30 Herri-kirol erakustaldia Ezkurdin (euria bada, Landako Gunean).
13:00 I. Argazki Txapelketaren sari banaketa, San Agustin kulturgunean.
13:30 Bilbainadak Andra Marian: Gaupasa taldea.
16:00-19:30 Kondaira ludoteka, Ezkurdin: Magik txapelketa (izena ematea 16:00etatik 16:30era), mahai-jokoak eta Warhamer erakusketa. Baita haurrentzako jokoak ere: Ecoxoc (euria bada, Landako Gunean).
17:30 ‘Jarri ta altxa’ ikuskizuna (Txirri, Mirri eta Txiribiton) Ezkurdin (euria bada, Nevers ikastetxean).
18:00 Jotak Andra Marian: Corrientes Navarras taldea.
18:30 Kalejira Guretzat fanfarreagaz.
19:30 Kalejira Patxikotxuri agur esateko udaletxeko plazatik Landako skate pistaraino. Bertan jaien bukaera, 20:00etan.
Urriak 26, zapatua
17:00-19:00 Durangoko I. Atletismo Eguna, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan).
19:30 Herri lasterketa, Alde Zaharrean.
20:00 XIX. Txistu Kontzertua, Landako Gunean.
Urriak 27, domeka
10:00 Barazkiekin egindako janari osasuntsuen txapelketa, Landako Gunean.
XLVII. Umeen Euskal Jaia: Merkatu plazan elkartuko dira talde guztiak 12:00etarako, eta kalejira egingo dute. Dantzarien alardea 17:00etan, Ezkurdin (euria bada, Merkatu Plazan).



Dendak Bai elkartearen txupinazoagaz hasiko dira aurtengo San Fausto jaiak

Txupinazoa botatzeko aukera eman izana, elkarteak 30 urteotan egindako lana eskertzeko modua dela uste dute



Oarbeaskoa eta Munitxa, bigantxen omenez Kalebarrian ezarritako monumentuaren ondoan.

> MARKEL ONAINDIA

Dendak Bai merkatarik elkarreko kideek izango dute aurtengo jaiak hasiera emateko ardura. Urriaren 11n jaurtiko dute txupinazoa, besteak beste, Guillermo Oarbeaskoak eta Amaia Munitxak. Urteetan egindako lanaren aitortzen lez ikusten dute udalak euren egindako eskaintza, eta oso pozik daude horregatik. Badira 30 urte inguru zenbait merkatarik sektorea dinamizatzeko batzen hasi zirenetik, Munitxak gogoratu duenez.

“Dendak Bai eta udalaren arteko hartueman oso ona da”, esan du elkarreko presidente ere baden Oarbeaskoak. Eta hori berria da. Izan ere, atzerago ez dute hain ondo elkar ulertu bien artean. Berreustez, merkataritza zinego-

tzi berriak, Iker Ocejak, saltokiak indartzeko ardura dauka. Aldaketa horren ondorio ere bada aurtengo udalak eta elkarteak hitzarmen bat sinatzea. Horren arabera, 38.000 euro eta lokal bat eman dizkio udalak. Askatasun etorbidean dagoen lokal hori da elkartearen egoitza berria.

Merkataritzaren egoera

Merkataritza ez dago momentu onean. Oarbeaskoak baieztatu du kalean ikusten dena. “Merkataritza oso txarto dago krisiaren eraginez. Sektore batzuk beste batzuk baino txarrago daude. Batzuk itxi egiten dira, eta beste batzuk zabaldu”. Merkatarik batzuek itxi beharra daukate, baina badago saltoki berrien aldeko apustua egiten duenik ere. Munitxak ikuspegi baikorragoa

Badira 30 urte inguru zenbait merkataritza sektorea dinamizatzeko batzen hasi zirenetik

Merkatariek lan egingo dute jaietan, baina gozatzeko tartea ere hartuko dute

dauka Durangaldeko sektoreari dagokionez: “Hemen daukagun merkataritza nahiko lehiakorra da”.

Jaiak batez ere ostalaritzan igartzen direla dio Oarbeaskoak, baina ez gainontzeko sektoreetan. Hori bai, kanpoko jendea etorri, eta norbere eskaparatea ikustea ere ona dela uste du.

Euskara komertzioetan

Dendak Bai elkarteak merkataritza sustatzeko hainbat kanpaina egiten ditu. Baina badauka konpromiso soziala ere. Esaterako, irailean udalak aurkeztutako *Guk euskeraz* kanpainan parte hartu dute. “Euskara gure lehenengo hizkuntza da”, esan du Oarbeaskoak. Ekimenaren helburua Durangoko merkataritzako hizkuntza paisaia euska-

raren presentzia handitzea da, eta horretarako, elkarteak bere bazkideak informatu ditu. Ekimenari babesa eman diote.

Jaiak aprobetxatzera

Merkatariek lan egingo dute jaietan, baina gozatzeko tartea ere hartuko dute. Oarbeaskoak zenezak eta perretxiko erakusketak izaten ditu gustukoen, baina “apur bat denetik” ikusten saiatzen da. Munitxak, koadrilagaz eta umeekin batera ospatuko ditu jaiak: “Hiru umeren ama naiz, eta kaleko animazioa umeentzako ekintzekin uztartu behar dut. Koadrilagaz egotea asko gustatzen zait, eta marmitako txapelketan parte hartzen dugu”. Horrez gainera, We Are Standard musika taldearen kontzertura joaten ere ahaleginduko dela esan du.

AMAYA
AUTO KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
www.amayaautoreparaciones.com

Tel.: 946 812 123 • Faxa: 946 203 818 • oficina@amayaautoreparaciones.com

primitiba kinielak egunkariak aldizkariak

IKERFER

Ermodo, 25 behea. Durango
Tel. 946 810 566

Azkonizaga

CRUZCAMPO • HEINEKEN • BUCKLER • AMSTEL • SHANDY • PEÑA CLARA • LA ASTURIANA

Bº Ortuzar, 1 • 48213 Izurza (Bizkaia) Tel/Fax: 94 681 06 52 azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

EGUIA S.L.
AROTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •
Tel.: 946 817 746 • Fax: 946 056 906
Mug.: 669 655 169 • Mug(2): 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



Edu eta Eloi Landia kartela aurkeztu zuten ekitaldian.

“Jendeari erraz helduko zaion kartela diseinatzen saiatu gara”

Edu eta Eloi Landia anaiek irabazi dute kartel lehiaketa; sorkuntzan bata bestearen osagarri direla diote: “Azkenean beti heltzen gara adostasunera”

► JOSEBA DERTEANO

Edu eta Eloi Landia anaien kartela aukeratu dute aurten-go San Fausto jaiak iragartzeko. Jendeari “erraz helduko zaion” kartela diseinatzen saiatu direla azaldu du Edu Landiak, “zerbait bisuala”.

Kartelean Durangoko jaien erakusgarriak diren toki bat, eta ekimen bat ageri dira: *Zezenak dira* ekimena Santa Anako arkuaren ondoan. Ideia irudikatzekeo *playmobil* jostailu eza-gunak erabili dituzte.

Anaia biak arkitektoak dira, eta kartela diseinatzeko orduan euren ogibideko ikuspegi teknikoa baztertu, eta ikusgarritasunera jo dute. Edu Landiaren arabera, “lehenengo ideiak bestelakoak ziren. Hasieran, jaietan esanguratsuak diren guneak plano batean

jasoko zituen irudia marraztea pentsatu genuen. Baina irudi abstraktuegia zela iruditu zitzaigun; guretzako ideia interesgarria zen, baina herritarrentzako... Orduan, kartela osatzeko erabili dugun ideia bururatu zitzaigun. Eta otu zitzaigun une beretik jakin genuen huraxe zela landu beharreko ideia. Umeen ikuspegitik osatu dugu kartela, ume batek jaiak zelan ikusten dituen galdetu diogu geure buruari”.

Landia anaia orain pare bat urte hasi ziren jaietako kartel lehiaketetara aurkezten. Orain urte bi izurtzako jaietako kartel lehiaketa irabazi zuten, eta Durangokoa da irabazi duten bigarren aldia. Durangokora aurretik ere aurkeztu izan dira: baina ordukoan kartel abstraktuegia egin zutela

uste dute, eta horregatik ez zutela irabazi. Kartelen zein arkitectura lanen sorkuntzan buru bi abantaila ala eztabaida luzerako bidea diren galdetu diogu Eduri, eta argi du abantaila dela: “Kontrapuntu bat barik itsutu egin zaitezke. Ikuspegi diferenteak izanagatik antze-

Edu Landia: “Sarritan, anaia kanpotik ibiltzen denean faltan ere botatzen dut kontrapuntua”

rako gustuak ditugu, eta beti heltzen gara adostasunera. Sarritan, anaia kanpotik ibiltzen denean faltan ere botatzen dut kontrapuntu hori”.

Duatloiagaz gozatzeko gonbita egingo du Mugarra Triatloi Taldeak domekan

Aurten zortzigarren urteurrena beteko du duatloi herrikoiak

► JOSEBA DERTEANO

Mugarra Triatloi Taldeak zortzigarren duatloi herrikoia prestatu du domeka honetarako. Urtero legez, ekimena duatloiaren inguruko jai bihurtzea gura dute; lehia kutsu barik, gazteek zein helduek duatloiagaz gozatzeko eguna izan dadila. Horregatik, izaera herrikoia izango du, eta parte hartzaileen irribarrea izango da ekimenaren arrakasta kalkulatzeko neurgailua.

Izena emateko egun bi daude: zapatuan Durangoko Gure Kabiya tabernan (19:00etatik 21:00etara), edo duatloiaren egunean bertan, 09:00etatik aurrera. 14 urtetik beherakoen izen-ematea euro bat izango da, eta adin horretatik

gorakoentzako hiru euro. Batutako dirua Mugarra Triatloi Eskolari laguntzeko erabiliko dute. Iaz 600 lagunek parte hartu zuten duatloi herrikoian.

Adin tarteetan banatuta hiru lasterketa prestatu dituzte Santa Anatik abiatuta. 8-14 urte artekoek zuzendutakoa 10:30ean hasiko da: 600 metro korrika, hiru kilometro bizikletan, eta beste 600 metro korrika. 11:00etan, 7 urtetik beherakoen txanda izango da. Nahi izanez gero, nagusi batek lagunduta ibili ahalko dira. 300 metroko ibilbidea birritan osatuko dute korrika, eta bizikletan beste kilometro bat egingo dute. 15 urtetik gorakoek proba 12:00etan hasiko dute: 6 km korrika, 11 bizikletaz eta 2 korrika.

EGITARAUA

- 10:30ean: 8-14 urte artekoak.

Korrika: 600 metro

Bizikletaz: Hiru kilometro

Korrika: 600 metro

- 11:00etan: 7 urtera artekoak.

Korrika: 300 metro

Bizikletaz: Kilometro bat

Korrika: 300 metro

- 12:00etan: 15 urtetik gorakoak.

Korrika: 4 km; Santa Ana,

Barrenkale, Kanpatorrosteta,

Komentukale, Antso Estegiz,

Kalebarria, Goienkale

Bizikletaz: 11 km; Errotatik gora,

Santikurutzeko bidea, Abadiño,

Zuhatzola parkea, Intxaurren, Santanoste

Korrika: 2 km



Duatloiaren iazko ekotaldiko irudia.

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

%40ko beherapena
kuartzo hotzarekin egindako begi inguruko tratamenduan:

begi-zuloak, begien azpiko poltsak, biguntasunak eta zimurrak txikitzen ditu.

Goienkale, 16-1.esk • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474

urriaren 1etik 31ra orain **21€**

altzariak
gandarias

Ermodo kalea, 15
Arkotxa kalea, 13
Tel.: 946 810 722
48200 DURANGO
info@mueblesgandarias.com

JAIK 2013



plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

TABIRA ETXEA

Pintxoak • Bazkariak • Afariak



Tabira kalea 33 • DURANGO
Tel.: 946 810 241

ZERO

Ostegun, ostiral eta larunbatetan afariak
Andra Mari plaza, X - Durango



Gukako kideek Pinondo plazan ateratako argazkia. Kepa Aginako.

'Jaietan ere, euskaraz hobe' le

AEK, EHE, Ibaizabal ikastola eta Berbaro taldea (Berbaro euskara elkarte, Plateruena Kafe Antzokia eta Anboto astekaria) dira ekimenaren bultzatzaileak.

> JONE GUENETXEA

Guka, *lehenengo pertsona*, *pluralean*. Durangon euskalgintzan diharduten hainbat elkarte eta eragilek izen hori jarri zioten iaz San Fausto jaietarako sortutako guneari. AEK, Euskal Herriaren Euskaraz, Ibaizabal ikastola eta Berbaro taldea (Berbaro euskara elkarte, Plateruena Kafe Antzokia eta Anboto astekaria) dira ekimenaren bultzatzaileak.

Eragile eta elkarte horietako langile eta militante ugari elkartu ziren eguaztenean Pinondon, aurtan Gukak izango dituen nobedadeen berri emateko.

Guka egitasmoa iaz jarri zuten martxan estreinako aldiz, eta harrera oso ona izan zuela diote. Bigarren edizio

honetarako lelo berezia pres-tatu dutela jakitera eman du-te: *Jaietan ere, euskaraz hobe*. Jaia eta ondo pasatzeko gogoia dagoen lekuetan euskararen erabilera bultzatzea gura du-te. "Esaldi horrek gure hel-burua argi eta garbi azaltzen du", gaineratu dute.

Guka egitasmoa iaz jarri zuten martxan estreinako aldiz, eta harrera oso ona izan zuela diote

Urriaren 11tik 20ra bitar-tean izango diren jaietara-ko, Pinondo plaza apainduko duen oso dekorazio berezia

prestatzen dihardute. Jaiekin lotutako esaldiak euskaraz batu dituzte, eta horrekin jant-ziko dute 30 metroko luzera izango duen karpa. "Dekora-zioan ahalegin handia egiten gabiltza. Bisitarien gustukoa izatea itxaroten dugu denok. Esaldi horiekin, euskaraz ber-ba egiteko gonbita luzatu gura diegu karpara datozen denei".

Euskalgintza uztartuz

Euskaraz bizi direnen eta bi-zi gura dutenen espazioa da Guka. Euskara herri bizitzara ekarri, eta euskaraz bizitzeko guneak sortzea da bere sor-tzaileen gogoia. Momentuz, jaietara mugatu dute ekintza eremua, baina aurrerago, urte osoan, beste ekintza batzue-tarako euskalgintza antolatzea dutela jomuga azaldu dute.





eloagaz dator Guka

(Plateruena Kafe Antzokia eta Anboto astekaria) dira ekimenaren bultzatzaileak

Jaiak gerturatzen ari direla kontuan hartuta, Guka-ko kideak jo eta ke dabilta guztia prestatzen. Aurrelana ere garrantzitsua dela irizita, dekorazioan eta muntaietan dihardute.

Jaiak auzolanean eta elkarlanean ulertzen ditu Gukak. Lan handia gelditzen denez egiteko, deialdi zabala egin diete Durangoko eta Durangaldeko euskaltzaleei ekimenagaz bat egin, eta Gukan parte hartu dezaten. Txosnako txandetan, muntaietan, ogitartekoak egiten, edo bestelako lanetan, bakoitzak bere lekua aurkitzea gura dute. Horretarako, *astekaria@anboto.org* helbide elektronikora mezua bidali daiteke, edo 946 232 523 telefono zenbakira deitu.

Aikorekin dantzan

Txosnaguneko jai egitarauaren barruan, urriaren 18an, 20:00etan, erromeria antolatuko dute, Aikoren eskutik. “Dantzarako musika jotzearen gozamen, eta dantzarako gustua zabaltzen du taldeak: musika jo, dantzatu eta dantzatzen irakatsi”. Ho-

Deialdi zabala egin diete Durangoko eta Durangaldeko euskaltzaleei

Horretarako, herri dantzak irakasteko, zuzeneko musika eskaintzen dute taldeko musikariek.

Guka Twitter-en

Urte guztian aktibo egongo den Twitter-eko kontua sortu du Gukak: @euskarazGUKA. “Sare sozialen bidez, euskalgintzan gabiltzanok urte osoan euskararen alde eta elkarlanean egiten dugunaren erakusle bihurtzea da asmoa”.

Umeen Eguna

Umeen Eguna antolatuko du Gukak urriaren 14an. Gaztelu puzgarriak, jolasak eta tailerrak prestatuko dituzte umeen gozamenerako.

Berbaro euskara elkarteak badu eskarmentua gaztetxoentzat aisialdian, eta ume eta gurasoei parte hartzeko deialdia egin diete. 11:00etatik 14:00etara Santa Ana plazan ezarriko dute jolas gunea.



SAN FAUSTO -DURANGO-



DURANGOKO TXOSNAK

JAIK HERRITIK HERRIARENTZAT

SAN FAUSTOAK 2013



BARIKUE URRIAK

11

20:30 KALEJIRA
UDALETXETIK
TXOSNAGUNERA

21:00 TXUPINAZOA
DURANGO 1936
KULTUR ELKARTEA

22:00 SHOCKASALTO
+ THE MOCKERS
+ THE CAPACES
CAPSULA

ZAPATUE URRIAK

GAZTE EGUNE

12

12:30 EUSKO LABEL
TXAHALERREA
ANDRAMARIN

12:30 KANTU POTE OA

15:00 GAZTE BAZKARIA
TXOSNAGUNEAN
BAZKALOSTEAN:
BERTSO SAIOA,
OLINPIADAK,
SARI BANAKETAK

17:30 UMEENTZAKO
PAILAZOAK
EZKURDIN

20:00-AK ALDERA ORKRESTA
ELEKTROTXARANGA

23:00 SERMOND'S+
COBRA + ANESTESIA

DOMEKA URRIAK

SAN FAUSTO EGUNE

13

11:00 PAELLA
TXAPELKETA
TXOSNAGUNEAN

14:00 SARI BANAKETA

17:00 MAÑARIA ERREKA
JAITSIERA TABIRAN

22:00 LAS DISASTERS
+ HOBO

ASTELEHENA URRIAK

UMIEN EGUNE

14

11:00 GAZTELU
PUZGARRIAK
SANTA ANAN

UMEENTZAKO
TAILERRAK

17:30 MOBY DICK+
AINARA
LEGARDON

BARIKUE URRIAK

18

18:00 TORTILLA
TXAPELKETA
TXOSNAGUNEAN

19:30 SARI BANAKETA

20:00 AIKO ERROMERIA
GUKAKO KARPAN

22:00 SEI URTE+
ANAI-ARREBAK
BELAKO

ZAPATUE URRIAK

ELKARTASUN ETA
MOZORRO EGUNE

19

GAIA: JOSTAILUAK

13:00 TRIKI - BERTSO
POTE OA
ALDE ZAHARREAN

15:00 BAZKARIA
TXOSNAGUNEAN
ELKARTASUN AZOKA TXIKIA

18:00 UMEENTZAKO
SORPRESA
ELKARTASUN ARGAZKI ERRALDOIA

20:00 GHETTO
23:00 GIBELURDIÑEK
LUHARTZ

Txosnagunea, jolaserako eta parrandarako herrigune

Durango 1936 elkartearen txupinazoagaz zabalduko dituzte txosnak urriaren 11n. Txosna Batzordeak pozik hartu du urteetako txosnen leku naturala, Pinondo



Jende askoren lan boluntarioari esker antolatu dute txosnetako egitaraua.

> AMAIA UGALDE

Ez da askorik falta Txosna Batzordeko kideak Pinondon karpak eta txosnak muntatzen hasteko. “Urteetako txosnen leku naturala” dela Pinondo, eta harako buelta “pozez” hartu dutela azaldu du Txosna Batzordeak. Herritarrei Txosnaguneko ekintzetan parte hartzeko deia egin die: “Txosnagunea herriaren gune bihurtu gura dugu, jai parte hartzaile, parekide eta euskaldunen aldeko gunea”.

Udaletxetik Pinondora kalejiran joan eta gero, Durango 1936 elkarteak irakurriko du pregoia

Aurten lau karpa eta bost txosna ipiniko dituzte Txosnagunean

Aurten, lau karpa eta bost txosna egongo dira txosnagunean. Bariku iluntzean, udaltxeko txupinazoaren ostean zabalduko dituzte txosnak. Udaletxetik 20:30ean irtengo dute kalejiran Pinondorantz, eta

21:00ak inguruan Durango 1936 elkarteak pregoia irakurriko du. Orduantxe inauguratuko dira guztiz aurtengo Sanfaustoak.

Ekintza jendetsuak

Gaueko kontzertuez gainera, egun osoko egitaraua prestatu dute Txosna Batzordeko kideek. “Adin guztietakoentzako eskaintza zabala” eskaini gura izan dutela azpimarratu dute.

Bigarren zapatuko Mozorro Egunerako “jostailuak” ipini dute gaia

San Fausto egunean paella txapelketa eta erreka jaitsierra edukiko dituzte. Iazkoan bereziki ekintza jendetsuak izan zirela gogoratu du Txosna Batzordeak, eta aurten ere horrela izatea espero dute.

Bigarren zapatuan jolasa eta parranda nahastuko dira. Mozorro Egunerako, “jostailuak” ipini dute gaia, eta “jostailu zaharren zein berriagoen topaleku” bihurtu gura dute Durango.

Lehenengo zapatuan Gazte Eguna, astelehenean Umeen Eguna, tortilla txapelketa, dantza... Patxikotxu eta Pantxike gustura ibiliko dira aurten ere.

Gazte Egunean parte hartzeko deia egin dute

> A.U.

San Fausto bezperan egun berezia izango dute Durango gazteek; eguerditik hasita, Gazte Eguna ospatuko dute. Bazkaria eta bazkal aurreko eta osteko jaigiroa izango dira nagusi. Iaz 400 gaztetik goratu ziren bazkaritarako, eta aurten ere lagun ugari batzea espero dute. Tikitak salgai daude 10 euroan, Arkarazon eta Intxaurren.

Andra Marian hasiko dute eguna gazteek 12:30 aldera; txahal erreka edukiko dute, eta handik kantu-poteoan hasiko

dira giroa berotzen. Bazkaritarako ordua 15:00etan ipini dute. Tíketa eroanda, bertan Gazte Eguneako kamisetak banatuko dituzte.

Bazkalostean bertso saioa eskainiko dute Fredi Paia eta Eneko Abasolo *Abarkas* bertsolariak. Gero, olinpiadak edukiko dituzte, eta iluntzean Elektrotxaranga Orkestrarekin ibiliko dira kalerik kale. Sermond's, Cobra eta Anestesiaren kontzertuekin amaituko dute eguna. Durangoko eta inguruetak gazte guztiei egin diete parte hartzeko deialdia.



ARANTZA ÁLVAREZ
PSIKOLOGOA - SEXOLOGOA
Nº Col. GZ-1517

- Orientazioa – Sexu informazioa
- Sexu terapia
- Bikotekide aholkularitza
- Bikotekide arteko haustura gainditzeko laguntza

Kontsulta Durangon eta Eibarren
Tel.: 645 732 388 · sexologiaypareja@hotmail.com



elektrotresnak
Tel.: 94 620 22 84
Fax: 94 620 22 84
juan antonio abasolo, 10

AGIRREZABAL
48200 DURANGO

e.aguirrezabal@euskalnet.net



zikloak
Tel.: 94 681 03 88
Fax: 94 620 22 84
fco. ibarra, 7 mikelidi

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

Tel.: 946 815 017

Durangaldeko taldeen oholza, San Faustoak

Kontzertu asko eta oso erakargarriak antolatu dituzte aurtengo Sanfaustoetarako, Txosnagunean

> I.E.

Sekulako eskaintza dakarte 2013ko Durangoko Sanfaustoek, zuzeneko musika eskaintzari dagokionez. Durangaldeko hainbat musika talderi oholza eskainiko die Txosnaguneak, eta eskualdeko hainbat musika talderen berri zuzena edukitzeko aukera eman go die entzuleei. Euskal Herriko musika eszenan lanean urteak daramatzaten eta oso ezagunak diren Capsula edo Anestesia moduko taldeekin joko dute The Mockers bezalako Durangaldeko musikari gazteen taldeek.

Durangaldeko hainbat musika talderi oholza eskainiko die Durangoko Txosnaguneak

La Txusta Morta eta We are Standard taldeak ariko dira urriaren 11n, Landako Gunean

Jaietako bi asteburuetan, hamabost kontzertu eta erromeria bi izango dira guztira, Txosnagunean. Urriaren 11n, 22:00etatik aurrera, hasiko da programazioa. Durangoko Shockasalto eta The Mockers, eta Capsula eta The Capaces taldeak ariko dira Txosnagunean.

Urriaren 12, 13 eta 14an ere zuzeneko musika eskaintza oparoa izango da, Durangoko San Fausto jaietan. Egun horietan, Durangaldeko Hobo eta Sermond's taldeek, eta Euskal Herriko gaur egungo eszenako izen handiek joko dute: Cobra, Anestesia, Ainara Legardon edo Mobydick-ek. Urriaren 14 arratsalderako (17:30erako) proposamena da Legardon eta Mobydick bakarlariena. Izan ere, une bakoitzerako

musika aproposa entzuteko aukera lotu dute 2013ko Sanfaustoetarako. Hainbat estilotako musika, gainera: rocka, punka, bluesa, popa, folka, elektronika... eta horien nahasketak izango dira Durangon, datorren asteburuan eta hurrengoan entzungai. Urriaren 18ko hitzordua ere musika eskaintza anitz horren erakusle da: Berrizko Seiurtek, Belako eta Anai Arrebak taldeekin joko du, 22:00etatik aurrera. Landako Gunean, bestelako doinuak izango dira entzungai: La Txusta de Morta eta We Are Standard taldeak ariko dira, esaterako, urriaren 11n.

Durangoko jaietako kultur arloko eskaintza berezien zerrendan azpimarragarri, bertako Arte Bizia elkartearen ikuskizuna ere badago. Euskal Astean aurkeztu zuten *Las Durangas, bizi bizirik* ikuskizuna eskainiko baitute, urriaren 11n, 23:00etan, Andra Mariko elizpean. Inkisizioak XVI. mendean hil zituen emakume durangarren inguruko kontakizuna du oinarri artista durangarren lanak.

'Rien a dire'

Txupinazoaren eta jaien hasieraren aurretik ere bada jaien egitarauaren barruan aurkeztu duten kultur emanaldi berezirik. Antzerki emanaldia izango da, urriaren 5ean, San Agustin kulturegunean. Eta, ez edozelakoa. Hileko programazioaren aurkezpenean "harribitxi" bezala aurkeztu zuten *Rien a dire*. Ezin galtzekoen zerrendan.

Leandre konpainia katalanaren lana da *Rien a dire*, "klown ikuskizun poetikoa": berben beharrik ez duena. Leandre eta Lila Ribera dira antzezleak, eta Tarregako antzerki jaialdian gehien gorapaturiko ikuskizunetako bat izan da.

Ezustearen eta barrearen bitartez edertasuna eta poesia eskaintzen du Leandre konpainiak. Agertokian, lau altzari eta ate bat baino ez dira ageri, eta absurdorako zirrikitu asko.



Urriaren 12an joko du Elorrioko Sermond's laukoteak, Durangoko Txosnagunean. Ibon Urizar.



Urriaren 5ean, San Agustin kulturegunean eskainiko du Leandre konpainiak 'Rien a dire' ikuskizuna.

Urriaren 19an, Deaffest jaialdia

Durango jaietan bete-betean sartuta dagoela, milaka musikazale batuko da, urriaren 19an, Landako Gunean eta Plateruenean. Izan ere, Deaffest izeneko musika jaialdiaren lehenengo edizioa ospatuko dute egun horretan, Durangon. Berri Txarrak, Willis Drummond, Non Servium, Porco Bravo, Glaukoma,

On, Herri Oihua, edo Kokein taldeek joko dute, besteak beste, jaialdian. Eta halako kartelagaz jarduteko aukera izango du Iurretako Krome taldeak ere.

Arratsaldean hasiko dira kontzertuak, eta Landako Gunean eta Plateruenean izango dira emanaldiak. Kafe Antzokiko agertokian jardungo dute

Nao, Glaukoma, Mentenguerra, Indarrap, Kokein, Cohen, Herri Oihua, Subestimados, Krome eta Sr.Mit taldeek, eta Landako Gunean gainontzekoek.

Plateruenearen webgunearen bitartez eskuratu daitezke sarrerak, eta Deaffest jaialdiaren webgunean dago musika emanaldiari buruzko informazio guztia.

Bartholo's
hizkuntza akademiaren
ekimena, langabetuei bideratuta.

•Kostu baxuko eskolak goizez,
eta atzerrira bidaltzeko aukera.

•Astean ordu biren truke, 40 € hilean.

Informazio gehiago nahi izanez gero,
Estherrekin jarri harremanetan:
Tel.: 656 797 344
Posta elektronikoa: mrs_dof@hotmail.com

aiatza abasolo
fisioterapeuta

tel./fax : 94 681 68 78
688 86 84 62

Mikeldi 8, behea - 48200 Durango

Haurdumaldian,
erditu aurretik
eta ostean
Gernu-
inkontinentzia
Pelbis-perineo
disfuntzioak

TXOPOETA
JANARIDENDA

San Inazio auzunea 1. zkia B
DURANGO
Tel.: 94 681 60 80

hitz
liburudenda

artekalea, 14
durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

ALMACENES ARRASATE



TIEN 21

Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 946 813 485
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



2
URTE

1200
b/min
6 kg

A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA FGB-162

290€ FAGOR



2
URTE

1000
b/min
7 kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3TS-873

290€ Balay



2
URTE

1000
b/min
7 kg

A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA Basic L-1017

299€ edesa



2
URTE

1200
b/min
7 kg

A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE-2447PE

399€ BOSCH



2
URTE

1000
b/min
8 kg

A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA IF-1810

345€ FAGOR



2
URTE

1200
b/min
8kg

A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WM-12Q488E

435€ SIEMENS



2
URTE

1700
X
600
X
600

A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA 3KF-6400B

399€ Balay



2
URTE

1850
X
600
X
600

A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FCT-682

499€ FAGOR



2
URTE

A Sailkapen energetikoa
**ONTZI-GARBIGAILUA
3VM-301BA**

360€ Balay



2
URTE

**INDUKZIO PLAKA
IF-33BS**

395€ FAGOR



2
URTE

**GALDARA BAJO NOX
FE24NOX**

1499€ FAGOR



2
URTE

**GALDARA BAJO NOX
THEMA NOX F-25**

1785€ Saunier Duval



2
URTE

**GALDARA TURBOTEC
BAJO NOX VMWS 21/245/4-5**

1775€ Vaillant

FAGOR
edesa

Balay
AEG

BOSCH

SIEMENS

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromisorik barik.



ETXERAKO
ZERBITZUA.
ZAHARRA
ERAMANGO DA



MERKEAGO
TOPATUZ GERO
DAGOEN ALDEA
BUELTATUKO DA



GUSTURA GERATU
EZEAN DIRUA
BUELTATUKO
DIZUGU



+dendak-EKO
"DURANGO"
TXARTELA
ERABILGARRI

Zure atsedenaldia hobetzen lagunduko dizugu



Gau-tu dendan urtebete daramagu AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA eskaintzen, eta norbanakoaren beharrianak ebaluatzen.

AZKEN BELAUNALDIKO KOLTXOIAK ditugu, eta gure produktu guztiak kalitate handikoak dira.

-ZIURTAGIRIEKIN

-EDOZEINEN ESKU DAUDEN PREZIO EGOKIEKIN



Hainbat gaiz osatutako ETENGABEKO ESKAINTZAK izaten ditugu; horrela, bezeroak berak ere aurreztu ahal izango du.

OHEKO ARROPA eskaintzeko orduan, denboraldiko joera nagusiak ditugu abiapuntu, eta bai ehun natural zein sintetikoa, bai ehun inteligentea kalitate handikoak dira.



Ondo pasau jaixetan!

Olleria 3, Durango - Bizkaia

Tel.: 946 550 700

gau-tu@hotmail.com

Kirola

> PADELA

Padelerako zaletasunari bidea eman diote Durangoko elkarte bik

Fair Play kluba orain urtebete sortu zuten, eta Padel Zaleak elkarte aurtengo udan jaio da; padelak eskualdean izan duen gorakadaren isla dira



Padel Zaleak elkarteak Durangoko azpiegiturretan antolatu zuen txapelketako une bat.

> JOSEBA DERTEANO

Azken hiru urteetan padelarekiko zaletasunak gora egin du nabarmen Durangaldean. Zaletasun horren ondorioz, eta zaletasun hori guztia bideratzeko helburuz, Durangon elkarte bi sortu dira urtebetean: Fair Play Durango Padel Kluba eta Padel Zaleak elkarte. Txapelketak antolatzen dituzte eta txapelketetan parte hartzen dute, baina lehiaz haratago, padelean jokatzeko uneak eta guneak sortzea dute helburu. Eskualdeko padel zaleei kirol hori praktikatzeko erraztasunak eskaini gura dizkiete.

Fair Play kluba aitzindaria da Durangaldean. Ofizialki orain urtebete sortu zuten (2012ko urriaren 1ean) aurretik urte askoan padela praktikatzen zebiltzan hainbat lagun artean. Sabin Gorrotxategi klubeko presidentearen berbetan “txapelketetara joaten gara, baina gure helburu nagusia padel zaleen inguruan giro ona sortzea da; zaletasun hau praktikatzeko dugun topagune zabal bihurtzea”. Gaur egun 102 bazkide dituzte.

Padelaren gorakada “batez ere azken bi-hiru urteetan” eman dela sumatu du Gorrotxategik. “Hankak hotz eta buruak bero” dituztenentzako, alegia, bulegoetan eserita lan egiten dutenentzako, joko aproposa dela dio: “Fisikoki ez du itzelezko prestaketarik eskatzen, baina aldi berean, ariketa egiten da”. Horra hankak berotzeko modu

ez hain sakrifikatua. Gainera, “kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da, jokatzeko ari zaren bitartean ehuneko ehuneko jokora egotea eskatzen du”. Horra bigarren abantaila, jokoaren eskakizunak egokiak dira buru beroak freskatzeko, eta denbora batez laneko buruhausteak ahazteko: “Lasaitasun fisikoa eta espirituala eskaintzen duen kirola da”, dio Gorrotxategik.

S. Gorrotxategi: “Padelak lasaitasun fisikoa eta espirituala eskaintzen ditu”

Padel Zaleak elkarteko presidente Oier Urigoitiak azken urteetako gorakada ulertzeko beste gako batzuk eman ditu. Alde batetik, Gorrotxategigaz bat dator padela praktikatzeko ez dela fisiko izugarri behar esaterakoan. Baina horrez gainera, beste abantaila batzuk ere zerrendatu ditu: “Teknikoki nahiko arin igartzen da hobe-kuntza. Gainera, frontoian-eta ibilitakoa dena arin moldatzen da”. Jokamoldea menderatzeko erraztasuna da, beraz, zale berriak erakartzeko beste amu bat. Padelaren kontrako er-tzean legoke, esaterako, tenisa. Urigoitiak tenisa darabil beste adibide baterako ere: “Tenisean pilotek ihes egiten dute alde batera zein bestera. Padelean

pilota bertan geratzen da, eta horrek jokoa bizkortzea dakar. Kontzentrazioa eskatzen duen joko bizkorra eta dibertigarria da padela”, adierazi du. Era berean, iruditzen zaio azken bi-hiru urteetan, batez ere, emakumeengan nabaritu dela padelean eman den gorakada.

Txapelketak eta ikastaroak
Durangoko elkarte biek txapelketak eta ikastaroak antolatzen dituzte. Padel Zaleak elkarte aurtengo udan sortu dute, eta bere lehenengo zeregina urriaren 20an amaituko den padel txapelketa antolatzea izan da. Durangoko kantxa bietan 125 bikote dabilta lehian, lau katego-

riatan. Bariku eta domeka goizetan, eta zapatuetan egun osoan jokatzeko dituzte kanporaketak. Jokalarietako batzuk Euskadiko hamar onenen artean daude: Nerea Olano, Ramon Rosello, eta Jordi Montreal, esaterako. World Padel Tourrean dabilen Michelle Treptow eta bere sa-soian munduko onenen artean ibili zen Alejandro Novillo argentinarra ere parte hartzen ari dira. Une honetan, txapelketak beste ezertarako astirik barik utzi dituela dio Urigoitiak, baina azarotik aurrera bazkide kanpaina egiteko zein irakasle bat Durangora ekarri, eta ikastaroak eskaintzen hasteko asmoa dutela adierazi du.

O. Urigoitia: “Kontzentrazioa eskatzen duen joko bizkorra eta dibertigarria da padela”

Txapelketa horretan bertan, Fair Play klubak sari bat banatuko du maila bakoitzean jokorik garbiena egiten duenari. Irailaren hasieran txapelketa bat antolatu zuten 30 bat bikoterekin, eta gazteentzako padel eskola sortu berri dute: “Kluba sortzeko abiapuntutzat hartutako estatutuek ez zuten ahalbidetzen 18 urtetik beherakoak klubera batzea. Gurasoak jokatzeko zeuden bitartean, umeek amorrutik eta inbidiaz begiratzen zuten. Horregatik, estatutuak moldatu, eta orain denei zabalik dago. Orain aste bi gaztetxoei begirako padel eskola abiatu genuen, eta hamar gaztetxotik gora daude izena emanda. Heziketa bat eman gura diegu, ez tekniko bakarrik, zintotasuna eta joko garbia lako balioak ere sustatu gura ditugu”.



Fair Play padel klubak antolatutako txapelketa bateko irudia.

AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala-Elgoibar
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Elorrio-Galea
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Zaldia-Trapagaran
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Berriz-Astrabuduako
· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B-Ezkurdi
· Zapatuan, 16:30ean, Larrakozelaian.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako-Orduña
· Domekan, 16:30ean, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa-Mallabia
· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

MAILA GORENA

Elorrioko Buskantza B-Unta Ibarreko
· Zapatuan, 17:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Sapuberri-Erromotarrak
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburu kiroldegian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Gaztetxie-Gernika
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baque-Bide Bide Donosti
· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

> PILOTA

SAN FAUSTO ZESTA-PUNTA TXAPELKETA (final laurdenak)

- Durango-Zumaia
- Markina-Donibane Lohizune
· Zapatuan, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.
- Biarritz-Gasteiz
- Berriatua-Andoain
· Domekan, 11:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

OLAZAR TXAPELKETA

Lau 1'erdian:
Elordui-Etxeberria
Binaka:
Bixintxo-Ezkudun/Uriona-Irusta
· Urriaren 10ean, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

> FUTBOLA

Abadiñon Futbol Eskola sortu dute harrobia lantzeko

Bost eta bederatzi urte arteko 55 gaztetxok eman dute izena; kanpoan bilatzen ibili beharrean, kluberako jokalaria bertan heztea dute helburu



Uztailean hasi ziren, eta 2014ko ekainean amaituko da estreinako denboraldia.

> J.D.

Abadiñoko kirol elkarteak Futbol Eskola sortu du. Orain arte, benjaminetatik aurrerako maila guztietan zituzten taldeak. Orain, eskola-kiroleko adina duten gaztetxoekin ere lan egiten dute. Horrela, harrobiaren aldeko apustua gehiago sendotu dute: “Ez dugu kanpora begira ibili gura jokalaria bilatzen.

Gazteenekin arlo teknikoa lantzen dute; nagusiagoak direnekin lan espezifikoagoak egiten dituzte

Klubean bertan umetatik eskaini gura diegu futboleko aritzeko aukera. Apurka, adinean aurrera doazen heinean, jokatzeko aukera klubean bertan eskaintzea da gure asmoa”, adierazi du Fut-

bol Eskolako zuzendarietako bat den Eneko Erdoizak (harrobiko koordinatzaile orokorra ere bada). Erdoizak Adrian Irazolagaz batera darama Futbol Eskolaren ardura.

Eskola 2004 eta 2009 urteen artean jaiotako gaztetxoei zuzenduta dago aurtengo; hau da, bost eta bederatzi urte artekoekin lan egiten dute. Astolan, belar artifizialeko zelaian, astean birritan batzen dira: martitzenean eta eguaztenean, 17:00etatik 18:30era.

Herri askotako gaztetxoak Futbol Eskola uztailean ipini zuten martxan, eta 2014ko ekainaren 15era arte iraungo du estreinako denboraldiak. Guztira 45 gaztetxo dabilta gaur egun. Baina beste hamar eskolara noiz batuko zain daude. Hasieran izen-ematean mugatutako ko-

purua zabaldu egingo dute gazte horiei ere tokia egiteko, eta datozen asteetan batuko dira Futbol Eskolara. Erdoizaren esanetan, eskola ez dago Abadiñoko gazteei bakarrik mugatuta: “Bergara, Elorrio eta Durangoko gaztetxoak ere baditugu, besteak beste”.

Eskola ez dago abadiñarrei mugatuta, eta Bergara, Elorrio zein Durangoko gazteak ere badabilta

Gazteenekin batez ere teknika (motrizitatea, mugimenduak...) eta horren inguruko kontzeptuak lantzen dituzte. Nagusiagoak direnekin jokatutako arlo espezifikoagoak entrenatzen dituzte.

> J.D.

